DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ura eta Saneamendua
Agua y Saneamiento
Urdaneta, 13 | Tel. 943481050 | www.donostia.eus
20006 Donostia / San Sebastián

Akordio proposamena
TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK:
ONARTUA
Propuesta de acuerdo a
JUNTA DE GOBIERNO LOCAL:
APROBADA
TGB Bilkura
Sesión JGL
2026/01/07
Zinegotzi idazkaria / Concejal-a
Olatz Yarza Garagorri

Exp.: 2025/057

DONOSTIAKO UDALAREN UR ETA SANEAMENDU SAREAK KONPONDU, BIRGAITU, BERRITU ETA ZAINDUTA EDUKITZEKO ZERBITZUAK EMATEKO KONTRATUA ARAUTUKO DUTEN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA.	**PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS QUE HAN DE REGIR EN EL CONTRATO PARA LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS DE REPARACIÓN, REHABILITACIÓN, RENOVACIÓN Y MANTENIMIENTO DE LAS REDES DE AGUA Y SANEAMIENTO MUNICIPAL DE LA CIUDAD DE DONOSTIA - SAN SEBASTIAN.**
AURKIBIDEA	**INDICE**
1. KAPITULUA. – KONTRATUAREN XEDEA ETA EREMUA, ZENBATEKOA **2. KAPITULUA.- UR ETA SANEAMENDU SAREETAKO LANEN ETA JARDUKETEN ANTOLAMENDUA** 2.1.- KONTSERBAZIO LAN OROKORRAK 2.2.- LARRIALDIEI BEREHALA ERANTZUTEKO LANAK 2.3.- PROGRAMATUTAKO LANAK 2.3.1.- URAREN SAREA 2.3.2.- SANEAMENDU SAREA 2.4.- ALDIZKAKO KOMUNIKAZIOAK ETA BILERAK **3. KAPITULUA.- LANGILEAK** 3.1.- BALDINTZA OROKORRAK 3.2.- ZERBITZUA EMATEKO ORDUTEGIA 3.3.- UNIFORMEA ETA DOKUMENTAZIOA 3.4.- LANGILEEN SEGURTASUNA **4. KAPITULUA.- MAKINERIA, BITARTEKO OSAGARRIAK ETA MATERIALAK** 4.1.- KONTSERBAZIO BRIGADAREN MAKINERIA ETA BITARTEKO LAGUNGARRIAK 4.2.- BRIGADEN MAKINERIA, BITARTEKO OSAGARRIAK ETA SEINALEZTATZE ELEMENTUAK 4.3.- MATERIALAK **5. KAPITULUA.- BETE BEHAR DIREN BALDINTZAK ETA ENPRESA ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA** 5.1.- EPEAK 5.2.- ERANTZUKIZUNA 5.3.- ZIGORRAK **6. KAPITULUA.- ZIURTAGIRIAK. PREZIOAK ETA ESKALA KOEFIZIENTEAK.** 6.1.- ZIURTAGIRIEN KALKULUA 6.2.- ESKALA KOEFIZIENTEEN TAULA (E) 6.3.- PROGRAMATU GABE IZAN ETA PREMIAZ EGIN BEHARREKO LANEN GAUEKO EDO JAIEGUNEKO LANALDIKO LANEN KOEFIZIENTEAK 6.4.- OBRAKO UNITATEKO PREZIOEN TAULA 6.5.- PREZIO BANAKATUAK **7. KAPITULUA.- KITATZEA, BESTE GASTU BATZUK** 7.1.- KITATZEA 7.2.- BESTE GASTU BATZUK **ERANSKINAK** I. ERANSKINA. UNITATEKO PREZIOAK II. ERANSKINA. HORNIDURA ETA SANEAMENDU SAREEN FITXA TEKNIKOAK. III. ERANSKINA. SEGURTASUN ETA OSASUN	**CAP 1. – OBJETO Y ÁMBITO DEL CONTRATO, IMPORTE** **CAP 2.- ORGANIZACIÓN DE LOS TRABAJOS Y ACTUACIONES EN LAS REDES DE AGUA Y SANEAMIENTO** 2.1.- TRABAJOS CONSERVACIÓN GENERAL 2.2.- TRABAJOS DE RESPUESTA INMEDIATA ANTE EMERGENCIAS 2.3.- TRABAJOS PROGRAMADOS 2.3.1.- RED DE AGUA 2.3.2.- RED DE SANEAMIENTO 2.4.- COMUNICACIONES Y REUNIONES PERIÓDICAS **CAP 3.- PERSONAL** 3.1.- CONDICIONES GENERALES 3.2.- HORARIO PRESTACIÓN DEL SERVICIO 3.3.- UNIFORME Y DOCUMENTACIÓN 3.4.- SEGURIDAD DEL PERSONAL **CAP 4.- MAQUINARIA, MEDIOS AUXILIARES Y MATERIALES** 4.1.- MAQUINARIA Y MEDIOS AUXILIARES BRIGADA DE CONSERVACIÓN 4.2.- MAQUINARIA, MEDIOS AUXILIARES Y ELEMENTOS DE SEÑALIZACIÓN BRIGADAS 4.3.- MATERIALES **CAP 5.- REQUISITOS A CUMPLIR Y RESPONSABILIDAD DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA** 5.1.- PLAZOS 5.2.- RESPONSABILIDAD 5.3.- PENALIZACIONES **CAP 6.- CERTIFICACIÓN. PRECIOS Y COEFICIENTES DE ESCALA.** 6.1.- CALCULO DE LAS CERTIFICACIONES 6.2.- CUADRO DE COEFICIENTES DE ESCALA (E) 6.3.- COEFICIENTES DE TRABAJOS JORNADA NOCTURNA O FESTIVA EN TRABAJOS DE URGENCIA, NO PROGRAMADOS 6.4.- CUADRO DE PRECIOS UNIDAD DE OBRA 6.5.- PRECIOS DESCOMPUESTOS **CAP 7.- LIQUIDACIÓN, OTROS GASTOS** 7.1.- LIQUIDACIÓN 7.2.- OTROS GASTOS **ANEXOS** ANEXO I. PRECIOS UNITARIOS ANEXO II. FICHAS TÉCNICAS DE REDES DE ABASTECIMIENTO Y SANEAMIENTO. ANEXO III. ESTUDIO DE SEGURIDAD Y SALUD

107406 XVII

AZTERLANA IV. ERANSKINA. HONDAKINAK KUDEATZEKO AZTERLANA V. ERANSKINA. GUTXI GORABEHERAKO AURREKONTUA	ANEXO IV. ESTUDIO DE GESTIÓN RESIDUOS ANEXO V. PRESUPUESTO ORIENTATIVO
1. KAPITULUA.- KONTRATUAREN XEDEA ETA EREMUA, ZENBATEKOA 1.1.- XEDEA ETA EREMUA Kontratu honen xedea da Donostiako Udalaren Hornidura eta Saneamendu Sareak osatzen dituzten hodiak eta elementuak konpontzeko, berritzeko, birgaitzeko eta zainduta edukitzeko lanak egitea zangak irekita, bai eta zangarik ireki gabeko teknologiekin birgaitzea ere. Hori guztia, ingurumena ahalik eta gehien errespetatuz eginez eta hiriak garapen jasangarriaren aldetik dituen helburuak lortze aldera. Jarduerak, baldintza agiri honetan zehaztutakoaren arabera, Donostiako udalerri osoan egingo dira. 1.2.- PREZIOAK Unitateko prezioetan sartuta dira gastu orokorrak, mozkin industriala eta baldintza-agiri honetan adierazitako gainerako kontzeptuak. Agiri teknikoaren I. ERANSKINEAN unitateko prezioen zerrenda dago. Lizitatzaileak prezio horien gainean **ehunekotan adierazitako eskaintza bakarra** aurkeztu beharko du, administrazio-klausula berezietan jarritako irizpideen arabera baloratuko dena. Enpresa lizitatzaileek baja orokorra eta bakarra aurkeztu beharko dute, aipatutako eranskinean agertzen diren prezioen zerrendari dagokionez. Informazioa emate aldera baino ez, lizitatzaileek kontratuko lanak hobeto ezagutu ditzaten, eta Udal honentzat inolako izaera loteslerik gabe, kontratuaren zenbateko global zenbatetsiaren gutxi gorabeherako aurrekontua erantsi da V. ERANSKIN gisa. Adierazi den bezala, datu horiek orientagarriak baino ez dira, Udalak guztiz beharrezkotzat jotzen dituen prestazioak soilik eskatuko baititu. Hori guztia, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 33. xedapen gehigarriak aurreikusitako araudiarekin bat.	**CAP 1. – OBJETO, ÁMBITO DEL CONTRATO, IMPORTE** 1.1.- OBJETO Y ÁMBITO Tiene por objeto este contrato el servicio para la realización de actuaciones de reparación, renovación, rehabilitación y mantenimiento de las conducciones y elementos que componen las Redes de Abastecimiento y Saneamiento Municipal de la ciudad de Donostia-San Sebastián mediante sistemas de apertura de zanja, así como la rehabilitación con tecnologías sin zanja. Todo ello de la manera mas respetuosa posible con el medio ambiente y para la consecución de los objetivos de desarrollo sostenible en la ciudad. La ejecución de las actuaciones, de acuerdo a lo especificado en este Pliego de Prescripciones, se desarrollara en todo el Término Municipal de Donostia-San Sebastián. 1.2.- PRECIOS Los precios unitarios llevan incluidos los gastos generales, beneficio industrial, así como el resto de conceptos indicados en este Pliego. En ANEXO I del Pliego Técnico se incluye un listado de precios unitarios, sobre los que el licitador deberá realizar **una única oferta porcentual**, que será valorada según los criterios establecidos en el Pliego de Clausulas Administrativas Particulares. Las empresas licitadoras deberán presentar una baja global y única, en tanto por ciento, a la relación de precios que figuran en el citado Anexo. A efectos meramente informativos, a fin de que los licitadores tengan un mejor conocimiento de los trabajos del contrato y sin que resulte vinculante para este Ayuntamiento, se adjunta como ANEXO V un presupuesto orientativo del importe global estimado del contrato. Tal y como se ha señalado, estos datos son meramente orientativos, dado que el Ayuntamiento llevará a cabo únicamente aquellas prestaciones que considere absolutamente necesarias. Todo ello, en aplicación de la Disposición Adicional 33 de la Ley de Contratos del Sector Público.
2. KAPITULUA.- UR ETA SANEAMENDU SAREETAKO LANEN ETA JARDUKETEN ANTOLAMENDUA Sarearen egoerari buruzko txostena egin eta, hartara, matxurarik, ihesik, buxadurarik, iragazterik eta sareak zaintzeko eta kontserbatzeko beste lan batzuk egin beharrik ez izateko lan batzuk egingo dituzte Uren Ustiapen eta Saneamendu Zerbitzuko langileek: Udalaren sareak etengabe nahiz aldizka ikuskatzea, herritarren kexek eta/edo iradokizunek eragindako	**CAP 2.- ORGANIZACIÓN DE LOS TRABAJOS Y ACTUACIONES EN LAS REDES DE AGUA Y SANEAMIENTO** El personal del Servicio de Explotación de Agua y Saneamiento efectuará trabajos como inspecciones constantes y periódicas a las redes municipales, inspecciones puntuales motivadas por quejas y/o sugerencias de la ciudadanía, así como inspecciones de TV en la red de saneamiento con el fin de obtener informe del estado y situación de la red y poder evitar así futuras

ikuskapen puntualak eta saneamendu-sarea telebistaz ikuskatzea, esate baterako.	averías, fugas, atascos, filtraciones y otros trabajos de mantenimiento y conservación de las redes.
Informazio hori eta kontratuaren arduradunaren argibideak kontuan hartuta, enpresa esleipendunak **hiru jarduketa mota** egingo ditu:	A partir de esta información, y teniendo en cuenta las indicaciones del responsable del contrato, la empresa adjudicataria realizará **tres tipos de actuaciones:**
1.- Kontserbazio orokorreko lanei dagozkienak 2.- Larrialdi-lanei dagozkienak 3.- Programatutako berritze eta/edo birgaitze jarduketei dagozkienak.	1.- Los correspondientes a los trabajos conservación general. 2.- Los trabajos de emergencia. 3.- Las actuaciones de renovación y/o rehabilitación programados.
Entitate handiagoko jarduketak ez dira kontratu honen xede izango, eta, beraz, inbertsio-programatik egingo dira haiek, dagokion proiektua egin ondoren.	Las actuaciones de mayor entidad no serán objeto del presente contrato, por lo que se ejecutarán con cargo al programa de inversiones tras la realización del correspondiente proyecto.
Kontserbazio, berritze eta/edo birgaitze lanak egiteko, hiru hilabeteko programa izango da. Hala ere, astean behin aldatu ahal izango da hura berehala edo premiaz heldu behar den gorabeheraren bat izanez gero. Programazio horretan, gutxienez, kokapen zehatza, jarduketa mota, eragindako tartea eta neurketak adierazi behar dira, eta jarduketaren balorazioa ere bai. Astero-astero, jarduketen plangintza eguneratu behar du enpresak.	Se realizará una programación de trabajos trimestral, para trabajos de conservación y renovación y/o rehabilitación que podrá variar semanalmente en función de las incidencias de cierta entidad que sean necesaria su intervención a corto plazo o de forma urgente. Esta programación, deberá incluir como mínimo la localización exacta, tipo de actuación, tramo afectado y mediciones con la correspondiente valoración de la actuación. Semanalmente la empresa ira actualizando el planning de actuaciones.
Hiru jarduketa mota horietarako denetarako, egunean, astean eta hiruhilekoan erabili behar diren ekipoen, makinen eta bitartekoen antolaketari buruzko agiriak, langileei buruzkoak, argazki-dokumentazioa, albaranak, fitxak, planoak eta Udalaren zerbitzu honek eskatutako beste edozein dokumentu aurkeztu behar da, ziurtagiriak begiratu eta onartu ahal izateko eta Udalaren Informazio Geografikoaren Sistema eguneratzeko hartara. Era berean, egindako jarduketen historikoa ere aurkeztu beharko da.	Para los tres tipos de actuaciones se presentarán los documentos de forma trimestral, semanal y diariamente de la organización de equipos, maquinaria y medios a emplear, personal, documentación fotográfica, albaranes, fichas, planos o cualquier otra documentación para que este Servicio pueda llevar a cabo la revisión y aprobación de las certificaciones, así como la actualización del GIS Municipal y un histórico de las actuaciones ejecutadas.
Edozein lan egiteko ere, aurren-aurrenekoa herritarrei eragozpenak kentzea eta elementu arriskutsuak behar bezala seinaleztatzea izango da. Nolanahi izanda ere, esleipendunak erantzukizun osoa izango du hirugarrenen aurrean, jarduketak gauzatzearen ondorioz izan daitezkeen istripu edo ezbeharrak direla-eta, eta Udala erantzukizun guztietatik libre egongo da.	En todos los trabajos será de prioridad la eliminación de molestias a la ciudadanía y la correcta señalización de elementos peligrosos. En cualquier caso, la empresa adjudicataria será plena responsable ante terceros por posibles accidentes o siniestros que puedan ocurrir por razón de la ejecución de las actuaciones, liberando al Ayuntamiento de toda responsabilidad al respecto.
2.1.- KONTSERBAZIO LAN OROKORRAK	2.1.- TRABAJOS DE CONSERVACIÓN GENERAL
Kontserbazio lan orokorrak dira ur eta saneamendu sareko elementuetan antzemandako kalte puntual eta isolatuak brigada baten baliabideekin (Kontserbazio Brigada) goiz eta arratsaldeko lanaldi batean konpontzeko modukoak direnak. Lan horiek dira: elementu puntualetan edo isolatuetan izaten diren ihes txikiak kentzea; falta diren ur-harguneak, hidranteak, iturriak, bizikletak garbitzekoak, haurrentzako jolas-zurrustak jartzea, aldatzea edo berritzea; falta diren tapak, saretak eta hustubideak jartzea, konpontzea eta/edo nibelatzea (bai espaloietan bai galtzadan), sifoiak konpontzea, kutxatilak konpontzea, hankak jartzea, putzuak birgaitzea, igeltserotzako jarduketa puntualak, instalazioetako itxiturak konpontzea eta sareak zaintzeko eta kontserbatzeko beste lan batzuk.	Se refieren los trabajos de conservación general a la reparación puntual y aislada de los desperfectos detectados en los elementos de la red de agua y saneamiento que se puedan subsanar con los medios de una brigada en la jornada laboral en horario de mañana y tarde (Brigada de Conservación). Estos trabajos se refieren a la eliminación de pequeñas fugas en elementos puntuales o aislados, reposición, sustitución o renovación de Boca de Riego (BR), hidrantes, fuentes, limpiabicis, chorros juegos infantiles, así como la reposición, reparación, y/o nivelación de tapas tanto en aceras como calzada, rejillas, sumideros, reparaciones de sifones, reparaciones de arquetas, colocación de pates, rehabilitación de pozos, actuaciones puntuales de albañilería, reparaciones de cierres en instalaciones, y otros trabajos de mantenimiento y conservación de las redes.
Aurreko paragrafoan aipatutako jarduketetan, kontserbazio-brigadako taldeari (Plegu Teknikoetako 3.1	En las actuaciones mencionadas en el párrafo anterior con necesidad de disponer de más personal a los medios

atala) eskatzen zaizkion baliabideak baino langile gehiago behar direnean (leku konfinatuetan, trafiko handiko tokietan eta beste mantentze eta kontserbazio lan batzuetan egiten diren jarduketetan, konparazio baterako), giza baliabide gehiago jarriko da. Kontratua emateko unitateko prezioetan ordainduko dira horiek.	exigidos para el equipo de la Brigada de Conservación (apartado 3.1 de estos PPTT), como es el caso de actuaciones en espacios confinados, zonas de gran afección de trafico, y otros trabajos de mantenimiento y conservación, se dispondrá de más medios humanos que serán abonados según los precios unitarios de adjudicación.
Langile gehiago ez eze, kontserbazio-brigadako ekiporako plegu honen 3.1 eta 4.1 apartatuetan eskatzen diren baliabideak ez diren beste batzuk ere izatea behar duten gainerako jarduketak programatuko obrak direla joko da, eta esleipeneko unitateko prezioetan ordainduko.	En el resto de actuaciones en las que sea necesario disponer, ademas de más personal, de medios extras diferentes a los medios exigidos para el equipo de la brigada conservación en los apartados 3.1 y 4.1 de este pliego, pasará a ser considerada como obra programada y será abonada según los precios unitarios de adjudicación.
Urtean **290 kontserbazio-jarduera** inguru egitea aurreikusten da, aipatu diren ur eta saneamendu arloetan.	Se prevé realizar unas **290 actuaciones** de conservación / año repartidas en agua y saneamiento de las mencionadas.
Horretarako, Udalaren Zerbitzu Teknikoek emandako gorabeheren fitxak hartuko dira oinarri, eta asteko bileretan lehenetsitakoetatik aurrera ekingo zaie. Enpresa esleipendunak "lanen asteko programazioa" egingo du, eta han adieraziko du konponketa hasteko eta amaitzeko gehieneko epea, zenbateko lana den eta haren garrantziaren arabera.	A tal efecto y a partir de las fichas de incidencias facilitadas por los Servicios Técnicos Municipales se priorizarán las actuaciones en las reuniones semanales. La empresa adjudicataria elaborará la “programación semanal de trabajos” donde se expresará el plazo máximo para el inicio y terminación de la reparación, según la entidad e importancia de la misma.
2.2.- LARRIALDIEI BEREHALA ERANTZUTEKO LANAK	2.2.- TRABAJOS DE RESPUESTA INMEDIATA ANTE EMERGENCIAS
Larrialdiko lantzat hartuko dira lanalditik kanpo egin beharrekoak eta/edo kontserbazio-brigadak egin ezin dituenak (haiek egiteko bitarteko eta makina egokirik ez duelako) eta berehala egin behar direnak, dela hodia hausi eta kalteren bat eragiteagatik, dela kolektorea kolapsatu eta errepidea hondoratzeagatik, dela sarean beste zerbait hondatzeagatik.	Fuera de la jornada laboral y/o aquellas actuaciones que no puedan ser acometidas por la brigada de conservación por no disponer de los medios y maquinaria adecuados, y con necesidad de actuación inmediata, ya sea por rotura de tubería con afecciones, hundimiento de calzada por colapso de colector u otros daños en la red, se considerarán trabajos de emergencia.
Urtean gehienez ere larrialdiko **30 jarduketa** izatea aurreikusten da uraren sarean, eta **15 jarduketa** saneamendu sarean, kontserbazio-lantaldeak kasu egiteko modukoak izango ez direnak.	Se prevé anualmente un máximo de **30 actuaciones** urgentes en la red de agua y **15 actuaciones** en la red de saneamiento y que no puedan ser atendidas por la brigada de conservación.
Zenbait kasutan, jarduketa edo jarduketa horien zirkunstantziek, lanak gauean edo jaiegunean egin beharra edo egitea komeni izatea ekarriko dute. Hala, bada, salbuespenezko kasu horietan ez da erreklamazio ekonomikorik egiterik izango Udalari. Lan horiek esleitutako unitateko prezioetan eta 6. KAPITULUAN (gaueko edo jaiegunetako lanen koefizienteak) deskribatutakoaren arabera ordainduko dira.	Estas actuaciones o las circunstancias de las mismas, podrán determinar en ciertos casos, la necesidad o conveniencia de realizarlo durante la noche o en día festivo, sin que ello pueda ser causa en estos casos excepcionales, de reclamación de tipo económico ante el Ayuntamiento. Estos trabajos, serán abonados según los precios unitarios de adjudicación y lo descrito en CAP. 6 (coeficientes de trabajos nocturnos o festivos)
Dena dela ere, arriskutsutzat edo premia handikotzat jotzen diren kalteak edo jarioak konpontzeari berehala ekin beharko zaio, babes-hesiak jarri aurrena eta konponketa-lanak egun berean edo berehala egiten hasita. Horrelako jarduketetan, enpresak ahalik eta azkarren adierazi behar die gorabehera konpontzen zer ordutan hasi den Udalaren Zerbitzu Teknikoei, bai eta haien jarraibideak bete ere. Ezinezkoa bada jarduketa egitea, enpresak bide publikoaren segurtasuna bermatzeko egokitzat jotzen dituen neurriak hartu beharko ditu. Gainera, hurrengo egunean, gorabeheraren fitxa emango die Udalaren Zerbitzu Teknikoei, presakoa edo arriskutsua den eta egindako eta egiteke dauden jarduketak zertan diren ere adierazita han.	Los desperfectos o fugas que sean considerados como peligrosos o muy urgentes serán abordados inmediatamente con la correspondiente instalación de vallas de protección y posterior inicio de los trabajos de reparación en el mismo día o de forma inmediata. En este tipo de actuaciones la empresa adjudicataria deberá comunicar la hora de inicio de reparación de la incidencia a los Servicios Técnicos Municipales y cumplir sus indicaciones. En el caso de que dicha actuación no se pueda hacer efectiva, la empresa deberá tomar las medidas que considere oportunas para garantizar la seguridad de la vía pública. Además, al día siguiente se facilitará a los Servicios Técnicos Municipales la ficha de incidencia con la calificación de urgente o peligrosa y el estado de actuaciones realizadas y las pendientes.

Lan horietarako, zaintza-zerbitzu bat ezarriko du enpresa esleipendunak, unean uneko eskaerei eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan erantzun ahal izateko. Enpresa esleipendunak horrela jarduteko modu bat ezarriko du, Udal Zerbitzu Teknikoen onarpena beharko duena. Larrialdiei berehala erantzuteko lan horien barruan sartzen da lantalde bat denbora tarte labur batean mobilizatu ahal izatea lan horiei ekiteko. Hala ere, horrek ez du esan nahi jarduera horiei esleitutako lantalde bat izan behar denik etengabe.	Para estos trabajos, la empresa adjudicataria establecerá un servicio de guardia de forma que se puedan atender demandas puntuales las 24 horas del día y todos los días del año. La empresa adjudicataria establecerá una forma de actuación en este sentido que deberá ser aprobada por los Servicios Técnicos Municipales. Estos trabajos de respuesta inmediata ante emergencias incluyen la posibilidad de movilizar un grupo de trabajo en un plazo corto de tiempo para cuestiones urgentes, aunque esto no supone la necesidad de establecer un grupo de trabajo continuo asignado a estas actuaciones.
Uraren sareko premiazko lanetan, enpresa esleipendunak, Ur Zerbitzuko udal-teknikariek aldez aurretik baimena eta adostasuna eman eta gero, jarioa izan duen elementua agerian uzteko egin behar diren lanak egingo ditu. Udalaren Uren Brigadak konponketa egin ondoren, elementu guztiak berriz ere lehen ziren bezala uzteko egin behar diren jarduketak egingo ditu enpresa esleipendunak.Talde horrek gaueko edo jaieguneko lanaldian egin ahal izango ditu lanak, zerbitzuaren beharren arabera. Jarduketen % 75 250 mm-ko edo gutxiagoko diametroa duten hodietan eta haien elementuetan egingo dira. Gainerakoak puntualak izango dira eta diametro handiagoko hodietan edo elementuetan egingo dira. Kontratistak lantalde bat izango du lan horiek egiteko; jarioa aurkitzeko lagina irekitzeko eta tapatzeko behar den makina, langile, seinale eta behar den gainerako bitartekoz osatua.	En los trabajos de urgencia en la red de agua, la empresa adjudicataria, previa autorización y conformidad de los Técnicos Municipales del Servicio de Aguas, procederá a realizar los trabajos necesarios para dejar al descubierto el elemento donde se produce la fuga. Una vez realizada la reparación por parte de la Brigada de Aguas Municipal, la empresa adjudicataria procederá a realizar las actuaciones necesarias para la reposición de todos los elementos al estado original. Este equipo podrá realizar los trabajos en jornada nocturna o festiva en función de las necesidades del Servicio. El 75% de las actuaciones se realizaran en tuberías de < o igual a 250mm de diámetro y sus elementos, el resto, y de forma puntual serán para tuberías o elementos de mayor diámetro. Para estos trabajos el contratista dispondrá de un equipo de trabajo formado por maquinaria, mano de obra, señalización y demás medios necesarios.
Saneamendu lanetarako ere beste lantalde bat izango du kontratistak, izandako gorabehera aurkitzeko lagina irekitzeko eta tapatzeko behar den makina, langile, seinale eta behar den gainerako bitartekoz osatutakoa. Enpresako langileek gorabehera konpondu ondoren, erasandako zerbitzuak berriz jarri, eremua urbanizatu da eta obra-hondakinak zabortegira eramango dira. Talde horrek gauez edo jaiegunez egin ahal izango ditu lanak, zerbitzuaren beharren arabera. Jardueren % 75 315 mm edo gutxiagoko diametroa duten hodietan eta 2 m baino gutxiagoko sakonerako putzuetan egingo dira. Gainerako jarduketak, puntualak izango dira eta kolektore edo neurri edo sakonera handiagoko elementuetan izango dira.	En el caso de saneamiento el contratista dispondrá de un equipo de trabajo formado por maquinaria, mano de obra, señalización y demás medios necesarios para realizar los trabajos de apertura y cierre de cata para localización de la incidencia, una vez reparada por el personal de la empresa se procederá a la reposición de servicios afectados, reurbanización de la zona y retirada de escombros a vertedero. Este equipo podrá realizar los trabajos en jornada nocturna o festiva en función de las necesidades del Servicio. El 75% de las actuaciones se realizarán en tuberías < o igual de 315mm de diámetro y pozos de profundidades < 2m, el resto de forma puntual será para colectores o elementos de mayor tamaño o profundidad.
2.3.- PROGRAMATUTAKO LANAK	2.3.- TRABAJOS PROGRAMADOS
Hondatuta den sarearen partea berritzeko edo birgaitzeko, sarea handitzeko, trazatua aldatzeko eta ur eta saneamendu sareen elementu eta adarretan egiten diren gainerako jarduketak dira, aurreko ataletan sartuta ez daudenak.	Se refieren estos trabajos a la renovación o rehabilitación de red dañada, ampliación y/o cambio de trazado y demás actuaciones en los elementos y ramales de las redes de agua y de saneamiento, no incluidos en apartados anteriores.
Beharren arabera, ur eta saneamendu sareak batera berritzeko, handitzeko edo hobetzeko modurik den ere begiratuko da, erasanak murrizteko hartara.	Según necesidades, se estudiará la posibilidad de la renovación, ampliación o mejora de las redes de agua y saneamiento de forma conjunta para disminuir las afecciones.
Baldintza-agiri honetan deskribatutako edozein lan egiten hasi aurretik, gainerako zerbitzuenak ere eskatu egingo ditu kontratistak; egin beharreko lanetan zehaztasun handiagoa izateko. Hau da, Iberdrola, Añarbe, Telefónica eta horrelakoen zerbitzuak eta Udalaren beste azpiegitura batzuenak ere bai (semaforoak, argiak edo antzeko beste batzuk).	El Contratista antes del inicio cualquiera de los trabajos descritos en este Pliego, para una mayor definición, realizará las labores de solicitud del resto de servicios como Iberdrola, Añarbe, Telefónica y el resto de instalaciones, así como las infraestructuras del Ayuntamiento como semáforos, alumbrado u otras análogas.

Obrak hastekoan, obraren kartelak jarriko dira (gutxienez, Udalaren logotipoa eta zerbitzuaren izena, enpresaren izena, lan mota, hasiera-data eta iraupena adieraziko dira; bi hizkuntzetan adierazi ere, euskararen erabilerari buruzko udal-araudiaren arabera); eta, era berean, laginketak egingo dira, azpiegitura edo zerbitzuen kokapena hobeto zehazteko, zerbitzuak behin-behinean desbideratuko dira, sarbideak egin eta jarri behar diren seinaleak jarri ere bai. Obra guztietan izango den lehentasuna herritarrei ahalik eta endredorik txikiena eragitea eta jarri behar diren seinaleak ondo jartzea izango da.	Al inicio de las obras se procederá a la colocación de carteles de la obra (donde se indicará como mínimo el Logotipo Ayuntamiento y nombre del Servicio, nombre de la empresa adjudicataria, tipo del trabajo, fecha de inicio y duración, se dispondrán en bilingüe de acuerdo a la normativa municipal sobre el uso del euskera), así como la realización de catas para mejor definición de la infraestructura o localización de servicios, desvíos provisionales de servicios, ejecución de accesos y señalización necesaria. Toda ejecución tendrá como prioridad la mínima afección o molestia a los ciudadanos, así como la correcta señalización.
Lanak, urari zein saneamenduari buruzkoak, II. ERANSKINEAN (Hornidura eta saneamendu sareen fitxa teknikoak), Donostiako Udalaren hornidura- eta saneamendu-araudian eta eraikuntza sektorearen inguruan indarrean diren gainerako arauetan deskribatzen diren baldintzen arabera egin beharko dira. Hor dira, esate baterako, Donostiako Udalaren Hornidura eta Saneamenduari buruzko Erregelamenduaren irizpide eta fitxa teknikoak, Errepideen Zuzendaritza Nagusiaren GIII. Planean adierazitakoa eta eraikuntzako jardunbide egokiaren ohitura.	La ejecución de los trabajos, tanto de agua como de saneamiento, se regirán según las condiciones que se describen en el ANEXO II (fichas técnicas de redes de abastecimiento y saneamiento), Reglamento de Abastecimiento y Saneamiento del Ayuntamiento de San Sebastián, así como en el resto de normas vinculadas al sector de la construcción en vigor, entre las que se pueden mencionar el PGIII de la Dirección General de Carreteras y la costumbre del buen hacer en la construcción.
Zoladurari dagokionez, espaloietan eta galtzaden azpian, diren sekzioak edo kontratuaren arduradunak adierazitako sekzioak aplikatuko dira. Loraategi-eremuetan, zen landaredia edo antzekoa aldatuko da berriro.	Con respecto a la pavimentación, en las aceras y bajo calzada se aplicarán las correspondientes secciones existentes o la sección indicada por el responsable del contrato. En zonas ajardinadas se repondrá la plantación igual o similar a la existente.
Obrak hasi aurretik, entregatu behar da: balorazioa, obraren programazio edo plangintza ahalik eta zehatzena, beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa eta afekzioak (merkatariei, oinezkoei, trafikoari...). Edozein aldaketa, 24 ordu lehenago jakinarazi behar da, eta inoiz ere ez lanak amaitzeko astebete baino gutxiago falta dela, aurreikusitako iraupena hilabete baino gehiago izanez gero.	Antes del inicio de las obras se deberá entregar valoración, así como una programación o planning de la obra lo mas detallado posible, coordinación con otros servicios, así como afecciones (a comerciantes, a peatones, al trafico...), cualquier modificación se comunicará antes de 24h y nunca una semana antes de la finalizacion de los trabajos cuando la duración prevista sea superior a un mes.
Bide publikoa okupatzeko baimenak Ur Zerbitzutik emango dira. Horretarako, enpresak honako hauek eman beharko ditu: okupazio-beharrak, plangintza, aurreikusitako datak, okupatu beharreko azalerak, afekzio motak (autobusa, bidegorria, merkatariak, garajeak eta beste batzuk), proposatutako seinaleztapena eta baimena eskatzeko behar den gainerako informazioa, hori guztia 48 ordu baino lehen.	Los permisos de ocupación de vía publica se realizarán desde el Servicio de Aguas, para ello la empresa deberá proporcionar las necesidades de ocupación, planning, fechas previstas, superficies a ocupar, tipos de afecciones (bus, carril bici, comerciantes, garajes y otras), señalización propuesta y demás información necesaria para la solicitud del permiso, todo ello antes de 48h.
Programatutako obretan, kontratu honetan sartu ez diren baina ur eta saneamendu sareekin zerikusia duten beste jarduketa batzuk ere sor daitezke (hartune partikularrak berritzea, konparazio baterako). Jabe partikularrak berrikuntza lan hori Udalaren kontratua hartuta duen enpresari ematea erabakitzen badu, enpresak planteatu egin behar du Udalaren obrarekin batera eta kontratu honen esleipenean jarritako unitateko prezioak kontuan hartuta egitea haiek ere.	Durante las obras programadas pueden surgir otras actuaciones no incluidas en este contrato pero que están relacionadas con las redes de agua y saneamiento, como es el caso de la renovación de las acometidas particulares. En el caso de que la propiedad opte por adjudicar la renovación con la empresa adjudicataria, la empresa deberá plantear ejecutar de forma conjunta con la obra municipal y teniendo en cuenta los precios unitarios de adjudicación del presente contrato.
2.3.1.- URAREN SAREA:	2.3.1.- RED DE AGUA:
Lan hauek egitea izango da: hausturak konpontzea,	Se refieren estos trabajos a la reparación de roturas,

akatsak ezabatzea, falta den sare-tarte edo hornidura-elementuak (udal-elementuen harguneak, sute-ahoak, balbulak, erregistro-kutxatilak eta abar) berriz jartzea, aldatzea edo berritzea, hiriko hornidura-sarea berritu beharra dakartenak.	eliminación de deficiencias, reposición, sustitución o renovación de tramos de red y/o elementos de abastecimiento (como acometidas de elementos municipales, Boca de Riego, hidrantes, válvulas, arquetas registro, etc.) que generan la necesidad de renovar la red de abastecimiento de la ciudad.
Jarduketa kopurua elementuen unitate edo metro linealen, zangaren sakoneraren eta jardungo den zoladura metro koadroren araberakoa da; beraz, azkeneko bi urteetako datuetan oinarrituta, urtean, gutxi goiti-beheti, jarduketa hauek programatuko dira:	El número de actuaciones depende de las unidades o metros lineales de elementos, profundidad de la zanja, así como de los metros cuadrados de pavimentación de la superficie donde se va actuar, por lo que, basándonos en datos de los dos últimos años, se programarán anualmente del orden de:
- **25 jarduketa** hornidura-sareko tarte batzuk berritzeko edo berriak egiteko, - **895 m** hodi, 250, 200, 150 eta 100 mm-ko diametrokoak, 50 elementu berritu beharreko sarearen direnak (harguneak, sute-ahoak, balbulak eta abar). Diametro handiagoetarako, oso jarduketa puntualak izango dira, eta, tamainaren arabera, kontratu honen bidez gauzatuko dira edo ez (adibidez, hormigoizko hodiak, txapazko atorra dutenak).	- **25 actuaciones** de renovación y/o ejecución nuevos tramos de red de abastecimiento, - **895 m** de zanja para montaje de tubería de diámetros 250, 200, 150 y 100 mm, unos 50 elementos ubicados en el trazado de la red a renovar como son acometidas, Boca de Riego, Hidrantes, Válvulas y otros elementos. Para diámetros mayores serán actuaciones muy puntuales y que dependiendo de la envergadura serán ejecutadas o no con este contrato (ejemplo, tuberías de hormigón con camisa de chapa)
- **910 m2** uretarako zoladura berritzeko (405m2 zoladura arautuan eta 505m2 malguan).	- **910 m2** de renovación de pavimento para aguas (405m2 en pavimento rigido y 505m2 en flexible).
Iturgintzako elementuen muntaketa Ura Ustiatzeko Zerbitzuko langileek egingo dute, eta, puntualki –kontratuaren arduradunaren aldez aurreko baimenarekin eta adostasunarekin– enpresa esleipendunak ere egin ahal izango ditu, bai eta Udalaren Uren Brigadari laguntzeko lanak ere. Lan horien ordainketa kontratua esleitzeko dokumentuan adierazitako zenbatekoetan izango da, albaranen bidez edo bi alderdiek sinatutako dokumentuaren bidez justifikatu ondoren. Agiri horiek, dagokion hileko ziurtagiriarekin batera entregatuko dira.	El montaje de los elementos de fontanería se realizará por parte del personal del Servicio de Explotación de Agua y de forma puntual previa autorización y conformidad del responsable del contrato podrá ser efectuado por la empresa adjudicataria, así como los trabajos de apoyo a la Brigada de Aguas Municipal cuyo abono será conforme a los importes de adjudicación y previa justificación mediante albaranes o documento firmado por ambas partes que serán entregados junto con la certificación del mes correspondiente.
Ur-hornidura kendu edo mozteko maniobrak Udalaren Uren Brigadako langileek beste inork ere ez ditu egingo, eta 24 ordu lehenago jakinaraziko zaie erabiltzaileei, konponketaren premia dela-eta programatu ezin direnak izan ezik. Uraren sareko presio eta desinfekzio probak ere ur-zerbitzuko langileek bestek ez ditu egingo.	Las maniobras para el corte del suministro de agua unicamente será ejecutado por el personal de la Brigada de Aguas Municipal y dichos cortes se avisarán con 24horas de anticipación a los usuarios, a excepción de aquellos cortes que no puedan ser programados debido a la urgencia de su reparación. En cuanto a las pruebas de presión y desinfección en la red de agua, también serán realizadas por el personal de Servicio de aguas.
2.3.2.- SANEAMENDU SAREA	2.3.2.- RED DE SANEAMIENTO
Lan horiek honako hauek dira: sarearen eta saneamendu-elementuen hausturak, gabeziak, birjartzeak, ordezteak edo berritzeak konpontzea, bai eta saneamendu-sarea zangarik gabeko beste aukera batzuen bidez hobetzeko beharrezkoak diren beste jarduketa batzuk ere, hala nola in situ egindako hodi jarraituen bidezko eroanbideak birgaitzea edo kolektoreen edo galerien barruan eskuz birgaitze-lanak egitea horretarako material espezifikoen bidez, hala nola bankadak konpontzea, harguneak egokitzea eta beharrezkoak diren gainerako lanak egitea, kolektore nagusiaren zerbitzua une oro mantenduz eta behar diren bitartekoekin emari-desbideratzeen bidez hartuneak eginez.	Se refiere estos trabajos a reparaciones de roturas, deficiencias, reposiciones, sustitución o renovación de la red y elementos de saneamiento, así como, otras actuaciones que sean necesarias para la mejora de la red de saneamiento mediante otras alternativas sin zanja como son la rehabilitación de conducciones con tubos continuos curados in situ o actuaciones de rehabilitación de forma manual en interior de colectores o galerías mediante materiales específicos para ello, como la reparación de bancadas, acondicionar acometidas y demás trabajos necesarios, manteniendo en todo momento el servicio del colector general y acometidas mediante desvíos de caudales con los medios necesarios.
Jarduketa kopurua elementuen unitate edo metro linealen, zangaren sakoneraren eta jardungo den	El número de actuaciones depende de las unidades o metros lineales de elementos, profundidad de la zanja, así como de

zoladura metro koadroren araberakoa da; beraz, azkeneko bi urteetako datuetan oinarrituta, urtean, gutxi goiti-beheti, jarduketa hauek programatuko dira: - **25** jarduketa, ur beltzen eta euri-uren sare-tarte berriak egiteko eta/edo lehengoak berritzeko. - **750 m** inguru hodi, 500 mm baino diametro txikiagokoa, < 2,40 m sakoneran. - **225** m/urtean, zangarik gabeko birgaitzea *in situ* ondutako hodi jarraituekin (mahuka, *packerrak*...); 315 mm-ko D.160 ratioa eta 50 m baino gutxiagoko luzera. - **200 m2**/urteko altxaeren birgaitzea eta **110 m2**/urteko kolektoreen zolata hormigoi eta/edo mortero bidez, 1,50 m-tik gorako altueran. - **225ml**/urtean, kolektorearen hainbat sekzioren sekzio osoko egitura-konponketa, egiturazko estaldura-hormigoia injektatuta. - **1.085 m2** zoladura berritzeko saneamendurako (525 m2 zoladura zurrunean eta 560 m2 malguan)	los metros cuadrados de pavimentación de la superficie donde se va actuar, por lo que, basándonos en datos de los dos últimos años, se programarán anualmente del orden de: - **25** actuaciones de renovación y/o ejecución de nuevos tramos de red de fecales y pluviales, - **750ml** de tubería de diámetro inferior a 500mm, profundidades <2,40m - **225ml**/año rehabilitación sin zanja con tubos continuos curados in situ (manga, packers…) con un ratio D.160 a 315mm y longitudes < a 50m - **200 m2/**año rehabilitación de alzados y **110m2/**año solera de colectores mediante hormigón y/o morteros, de altura superior a 1,50m. - **225ml**/año reparación estructural de sección completa de diferentes secciones de colector mediante inyección de hormigón estructural de revestimiento. - **1.085 m2** de renovación de pavimento para saneamiento (525m2 en pavimento rígido y 560 m2 en flexible)
2.4.- ALDIZKAKO KOMUNIKAZIOAK ETA BILERAK Gutxienez, aldizkako komunikazio eta bilera hauek izango dira: - Egunero, enpresa esleipendunak «gorabeheren fitxak» eta lan-partea jakinaraziko ditu, posta elektronikoz nahiz Internetez. - Astero, enpresaren esleipendunaren Zerbitzuaren Burua den teknikaria Udal Zerbitzu Teknikoekin bilduko da, zerbitzuko gaiak aztertzeko; bilera horretan, enpresa esleipendunak eskatzen zaizkion lan-gaien berri emango du. Unean-unean berrikusiko dira jasotako salaketa edo parte guztiak, gorabehera parteak eta "asteko lanean programazioa", bai eta lanen martxa eta jarraipena ere. Udal-zerbitzuekin batera, «asteko lanen programazioa» planteatu eta egitea. - Hilean behin, ziurtagiriak egiteko eta sareak, parteak eta albaranak begiratzeko eta eguneratzeko dokumentazioa entregatzeko bilerak egingo dira. - Hiru hilean behin, zerbitzua baloratzeko eta jarduketa-planak egiteko edo eguneratzeko bilerak egingo dira. - Urtean behin, egindako jarduketen laburpena eta obren sailkapena.	2.4.- COMUNICACIONES Y REUNIONES PERIÓDICAS Como mínimo se establecerán las siguientes comunicaciones y reuniones periódicas: - Diariamente la empresa adjudicataria comunicará vía correo electrónico las "fichas de incidencias" elaboradas y el parte de trabajo. - Semanalmente el/la Jefe de Servicio de la empresa adjudicataria se reunirá con los Servicios Técnicos Municipales para tratar los temas del Servicio y en la que la empresa adjudicataria dará cuenta de los temas de trabajo que se le exijan. Se revisarán puntualmente cada una de las denuncias o parte recibidos, los partes de incidencias y la “programación semanal de trabajos”, así como la marcha y seguimiento de los trabajos. Junto con los Servicios Municipales plantearán y elaborarán la “programación semanal de trabajos”. - Mensualmente se celebrarán reuniones para la elaboración de las correspondientes certificaciones y entregas de documentación para la revisión y actualización de las redes, partes y albaranes. - Trimestralmente se celebrarán reuniones para la valoración del Servicio y elaboración de planes de actuación. - Resumen anual de actuaciones, clasificación obras.
3. KAPITULUA.- LANGILEAK 3.1.- BALDINTZA OROKORRAK Jarraian deskribatzen diren baldintzak "gutxieneko baldintzak" dira, eta enpresa esleipendunak zehaztu eta dimentsionatu beharko du zerbitzua behar bezala emateko zer izan beharko duen. Zerbitzua emateko disponibilitate erabatekoa eta deskribatutako lanak egiten esperientzia dutenak, gutxienez hauek izan behar dira: - Agiri honetan deskribatutako lanak egiteko gaitutako	**CAP 3.- PERSONAL** 3.1.- CONDICIONES GENERALES Las condiciones que se describen a continuación se establecen como “mínimas”, bien entendido que la empresa adjudicataria deberá dimensionar y definir correctamente sus disponibilidades para el correcto cumplimiento del Servicio. Con disponibilidad completa al Servicio y con experiencia en la realización de los trabajos descritos se dispondría de un mínimo de:

ZERBITZUBURU BAT, % 100eko disponibilitatea eta kontratu honetarako %20ko gutxieneko dedikazioarekin, bai eta eskatutako zerbitzu hauetan edo antzeko lanpostuetan gutxienez 5 urteko esperientzia egiaztatua ere. Zerbitzuburua edo hark eskuordetzen duen beste pertsona bat (behar bezala gaituta dagoen pertsona izango da hura ere) eguneko 24 orduetan, urteko egun guztietan, zerbitzuko gaiei erantzuteko prest izango da, eta hura izango da lanak behar bezala egiteko arduraduna ere.	- Con **disponibilidad 100%,** y una **dedicación mínima al contrato del 20%,** un **JEFE DE SERVICIO** habilitado para ejercer los trabajos descritos en este Pliego, con acreditada experiencia de un mínimo de 5 años en el tipo de Servicios requeridos o puestos similares. El Jefe del Servicio o persona suficientemente capacitada en quien delegue, estará disponible para temas del Servicio durante las 24 horas del día, todos los días del año, será la responsable de la correcta ejecución de los trabajos.
- **ARDURADUN NAGUSI BAT, % 100eko disponibilitatea eta kontratu honetarako %25eko gutxieneko dedikazioarekin** , bai eta gutxienez 5 urteko esperientzia egiaztatua duena ur eta saneamendu kanalizazioak egiten. Lanak antolatzea eta berrikustea izango da haren ardura.	- Con **disponibilidad 100%,** y una **dedicación mínima al contrato del 25%**, un **ENCARGADO** con acreditada experiencia de un mínimo de 5 años en realización de canalizaciones de agua y saneamiento para la organización y revisión de los trabajos.
- **Lanaldi guztian prest eta % 100eko dedikazioa** izango duen talde finko bat, **KONTSERBAZIO BRIGADA,** bi ofizialez osatutakoa. Gutxienez 5 urteko esperientzia izango dute haiek biek ura bideratzeko eta saneatzeko lanak egiten, bai eta espaloiei zorua ematen, zintarriak jartzen eta beste kontserbazio lan orokor batzuk egiten ere. Enpresak koordinatuko ditu langile horiek eta egin beharreko lanak, urte guztian izan daitezen bi langileak egin behar diren lanak segurtasun-neurriak betez egiteko.	- Con **disponibilidad durante la jornada laboral completa** se dispondrá de un equipo fijo **BRIGADA DE CONSERVACIÓN** formado por dos Oficiales, con experiencia de un mínimo de 5 años en trabajos de canalización de agua y saneamiento, así como pavimentación de aceras, bordillos y otros trabajos de conservación general. La empresa coordinará los trabajos con este personal para que se disponga de los dos operarios para realizar las actuaciones cumpliendo con las medidas de seguridad a lo largo del año.
- **LANTALDE BAT (1), PREMIAZKO LANAK** egiteko zerbitzua emango duena. Gutxienez 3 lehen mailako ofizial gidari, makinista eta gainerantzeko lanak egingo dituztenak, ura bideratzeko eta saneamendu lanak egiten, espaloiei zorua ematen, zintarriak jartzen eta sareen mantentze eta kontserbazioan bestelako lan orokor batzuk egiten gutxienez 5 urteko esperientzia dutenak izan behar dira lantalde horretan, eta % 100eko dedikazioa izan behar dute langile guztiek. Disponibilitatea 24 ordukoa izango da, gauak eta jaiegunak barne. Eta denbora gutxian lantalde bat mobilizatzeko modua ere izan behar du, presako gaietarako. Horrek ez du esanahi lantalde jarraitua izan behar denik nahitaez. Enpresa esleipendunak kontserbazioaren martxarako egokien iruditzen zaion lanaldia eta lan-txandak jarriko ditu langileentzat. Hala ere, Udalaren zerbitzuak, beharrezkotzat jotzen dituen kasuetan, libre izango du ordutegi bat jartzea lanak egiteko, eta enpresa esleipendunak ezin izango du esleipen-prezioak igotzeko eskatu horregatik.	- **UN (1) EQUIPO** que prestará el servicio a los **TRABAJOS DE URGENCIA** (personal con 100% disponibilidad) formado al menos por 3 oficiales de primera que cumplirán con las labores de chofer, maquinista y resto de trabajos, con experiencia de un mínimo de 5 años en trabajos de canalización de agua y saneamiento, así como pavimentación de aceras, bordillos y otros trabajos de mantenimiento y conservación de las redes. La disponibilidad se entiende las 24 horas, incluso noches y festivos. Además de la posibilidad de movilizar un grupo de trabajo en un plazo corto de tiempo para cuestiones urgentes. Esto no supone la necesidad de establecer un grupo de trabajo continuo. La empresa adjudicataria fijará para sus operarios la jornada laboral y los turnos de trabajo que estime más conveniente para la mejor marcha de la conservación, si bien el Servicio, en aquellos casos que estime necesario, podrá determinar un horario para realización de los trabajos, sin que la empresa adjudicataria pueda solicitar por ello un aumento de los precios de adjudicación.
Baldintza-agirian deskribatutako gainerako lanak behar bezala egiteko, zerbitzuburuak lantalde batzuk proposatu eta antolatuko ditu, lan edo obra motaren arabera. Hala, enpresa esleipendunak honako hauek izango ditu gutxienez:	Para una correcta ejecución del resto de los trabajos descritos en el Pliego, el Jefe de Servicio propondrá y organizará los equipos necesarios en función del tipo de trabajo u obra, la empresa adjudicataria como mínimo dispondrá de:
- **BI (2) BRIGADA PROGRAMATUTAKO LANETARAKO**, esleitutako lan bakoitzerako egokia den langile kopurua dela brigada bakoitzean. Talde horietako langileek gutxienez 5 urteko esperientzia izan beharko dute ura bideratzeko eta saneatzeko lanetan, kolektoreen barrualdetik birgaitzeko lanetan eta zoladura-lanetan. Kontratu honetako lanen antolamenduari buruzko segurtasun eta osasun arloetako xedapenak aintzakotzat hartuta, kontuan izan behar da gutxienez bi langile izan behar direla edozein	- **DOS (2) EQUIPOS DE BRIGADAS PARA TRABAJOS PROGRAMADOS** con el numero de operarios por brigada acorde para cada trabajo asignado, el personal de estos equipos deberán tener experiencia mínima de 5 años en realización de trabajos de canalización de agua y saneamiento, rehabilitación por el interior de colectores, así como en trabajos de pavimentación. Teniendo en cuenta las disposiciones en materia de seguridad y salud con respecto a la organización de los trabajos de este contrato se tendrá en cuenta que como mínimo se deberá de disponer de 2

jarduketa egiteko, eta hiru langile leku konfinatuetan, premiazko jarduketetan edo lan-motagatik langile gehiago behar diren lanak egiteko.	operarios para cualquier actuación y de 3 operarios en actuaciones en espacios confinados, actuaciones urgentes o aquellos trabajos que se requiera mas personal por la tipología del trabajo.
3.2.- ZERBITZUA EMATEKO ORDUTEGIA	3.2.- HORARIO PRESTACIÓN DEL SERVICIO
Oro har, eta kasu jakin batzuetan izan ezik, astelehenetik ostiralera egingo dira zerbitzua emateko lanak. Hala ere, Udalak, beharrezkotzat jotzen duen kasuetan, libre izango du beste ordutegi bat jartzea –eragin handirik ez sortzeko lanek–, eta enpresa esleipendunak ez du konpentsazio ekonomikorik eskatzerik izango horregatik.	Como norma general y salvo casos puntuales, los trabajos para la prestación del servicio se realizarán de lunes a viernes. Sin embargo, el Ayuntamiento, en aquellos casos que estime necesario, podrá determinar un horario diferente para evitar afecciones importantes y sin que la empresa adjudicataria pueda solicitar por ello compensación económica.
3.3.- UNIFORMEA ETA DOKUMENTAZIOA	3.3.- UNIFORME Y DOCUMENTACIÓN
Bide publikoan lan egiten duten enpresa esleipenduneko langileak identifikatuta egon beharko dira. Kanpoko goiko jantzian, enpresa esleipenduna identifikatzen duen irudiaz gain, ikur bat eramango dute. Ikur horretan zerbitzuaren testua agertuko da, Udalak ezartzen dituen espezifikazioen arabera. Horretaz gain, nortasun-txartel ere eramango dute, enpresa esleipendunak berak emango diena. Uniformearen eta nortasun-txartelaren ereduek Udalaren onarpena beharko dute, eta euskararen udal-araudia bete beharko dute.	El personal de la empresa adjudicataria que realice sus trabajos en la vía pública deberá ir identificado de manera que en su prenda superior exterior, además de la identificación de la empresa adjudicataria, llevará consigo un emblema en el que figurará el texto del Servicio según las especificaciones que marque el Ayuntamiento. Asimismo irá provisto de una tarjeta de identidad que será facilitada por la propia empresa adjudicataria. Los modelos de uniforme y tarjeta de identidad deberán ser aprobados por el Ayuntamiento y cumplir con la normativa municipal de euskera.
3.4.- LANGILEEN SEGURTASUNA	3.4.- SEGURIDAD DEL PERSONAL
Enpresa esleipenduna behartuta egongo da bere agindupeko langile guztiei indarrean dauden xedapenek eskatzen dituzten segurtasuneko eta istripuen prebentzioko elementu guztiak ematera (segurtasun-uhalak, babes-kaskoak, eskularru isolatzaileak, txaleko islatzaileak eta abar), eta elementu horiek langileek erabil ditzaten lortzeko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu. Enpresa esleipenduneko langileek lan-istripurik izanez gero, erantzukizuna enpresa esleipendunarena eta ez beste inorena izango da.	La empresa adjudicataria estará obligada a dotar a todo el personal a sus órdenes de todos los elementos de seguridad y prevención de accidentes que exigen las disposiciones vigentes (cinturones de seguridad, casco protectores, guantes aislantes, chaleco reflectante u otros análogos), debiendo tomar las medidas necesarias para conseguir que dichos elementos sean utilizados por el personal, siendo la responsabilidad de los accidentes laborales que pueda sufrir el personal de la empresa adjudicataria únicamente de la empresa adjudicataria.
Lanak egitean, une oro bete beharko da onartzen den Segurtasun Planean ezarritakoa, eta, oro har, beharrezko neurri egokiak hartu beharko dira langileek nahiz hirugarrenek istripurik izan ez dezaten.	En la ejecución de los trabajos, deberá cumplirse en todo momento lo especificado en el Plan de Seguridad que se apruebe, y en general adoptar las medidas necesarias y oportunas para evitar accidentes, tanto de los/as trabajadores/as, como de terceros.
4. KAPITULUA.- MAKINERIA, BITARTEKO OSAGARRIAK ETA MATERIALAK	**CAP 4.- MAQUINARIA, MEDIOS AUXILIARES Y MATERIALES**
4.1.- "KONTSERBAZIO BRIGADA"REN MAKINERIA ETA BITARTEKO OSAGARRIAK	4.1.- MAQUINARIA Y MEDIOS AUXILIARES EQUIPO “BRIGADA DE CONSERVACIÓN”
Brigadarentzako ibilgailu bat, % 100eko dedikazioarekin eta zerbitzurako prestutasunarekin, tresna txikiak kargatzeko gaitasunarekin eta erabilera komuneko materiala garraiatzeko espazioarekin, tresna txikiekin (mailu konpresorea, ebakigailua, oragailua, erreminta txikia, hesiak eta beharrezko beste elementu batzuk) eta seinaleztapen-materialarekin. Ibilgailuak led barra edo antzeko seinaleztapen-ekipamendua izan beharko du, bai eta GPSa ere, lanak lokalizatu eta horien jarraipena egiteko. Era berean, enpresak aplikazioan sarbidea	Un vehículo para la brigada con un 100% dedicación y disponibilidad al servicio, con capacidad de carga de pequeña herramienta y espacio para transporte de material de uso común, pequeña herramienta (martillo compresor, cortadora, amasadora, pequeña herramienta, vallas y otros elementos necesarios) y material de señalización. El vehículo ira dotado incluso de equipamiento de señalización tipo barra leds o similar, además de GPS para localización y seguimiento de los trabajos, la empresa dará acceso a la aplicación al responsable del contrato.

emango dio kontratuaren arduradunari zerbitzuko teknikariei.	
Brigadarentzako ibilgailuak gutxienez TZN-ren (DGT) B ingurumen-bereizgarria (horia) izan beharko du. Ibilgailu horrek, baimenei dagokienez, zerbitzua egikaritzen duten bitartean Donostiako Isuri Gutxiko Eremuak arautzeko Udal Ordenantzak araututakoa bete beharko du. Esleipendunak zerbitzuan erabiltzea proposatzen duen ibilgailu guztien fitxa teknikoa aurkeztu beharko du. Fitxa horretan zehaztapen tekniko hauek edo erregaiaren teknologiari buruzkoak agertu behar dira.	El vehículo destinado a la brigada deberá contar, al menos, con el distintivo ambiental B (amarillo) de la DGT. Este vehículo deberá cumplir, en cuanto a las autorizaciones, lo regulado en la Ordenanza Municipal reguladora de las zonas de bajas emisiones de San Sebastián durante la ejecución del servicio. El adjudicatario deberá presentar la ficha técnica de todos los vehículos que proponga utilizar en el servicio. En dicha ficha deberán figurar las siguientes especificaciones técnicas o relativas a la tecnología del combustible.
Gainera, ekipo horrek semaforo-joko bat izango du, bi bateria-sortarekin batera. Gorabeherak konpontzeko seinaleak jartzeko erabili ahal izango dira horiek, bai eta jarduketa batzuk egiteko segurtasun-neurri gisa ere.	Además, este equipo dispondrá de un juego de semáforos junto con dos juegos de baterías, que podrán ser empleados tanto para señalización en la reparación de incidencias, como medida de seguridad en la ejecución de algunas actuaciones.
Kontserbazio, mantentze, erabilera eta aseguru gastu guztiak, eta bestelakoak, enpresa esleipendunaren kontura joango dira. Esleipendunaren betebeharra izango da ibilgailuak egoera onean mantentzea une oro; matxurarik izanez gero, antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuekin ordezkatu beharko dira.	Todos los gastos de conservación, mantenimiento, uso, seguros y otros correrán a cargo de la empresa adjudicataria. Será obligación de la empresa adjudicataria el perfecto estado del vehículo en todo momento, en caso de avería deberán ser sustituidos por otros de análogas características.
Zerbitzuak emandako jarraibideen arabera margotu eta errotulatu beharko dira ibilgailuak.	El vehículo será pintado y rotulado según indicaciones del Servicio.
Lan guztietan zarata, hautsa eta isuri atmosferikoak minimizatzeko neurriak hartuko dira.	En todos los trabajos se adoptarán medidas para minimizar el ruido, el polvo y las emisiones a la atmósfera
4.2.- MAKINERIA, BALIABIDE OSAGARRIAK ETA SEINALEZTATZE ELEMENTUAK KONPONTZEKO, BIRGAITZEKO, BERRITZEKO ETA MANTENTZEKO LANETAN	4.2.- MAQUINARIA, MEDIOS AUXILIARES Y ELEMENTOS DE SEÑALIZACIÓN EN TRABAJOS DE REPARACION, REHABILITACION, RENOVACION Y MANTENIMIENTO
Deskribatutako gainerako lanak behar bezala egiteko, enpresa esleipendunak behar diren makinak eta bitartekoak proposatu eta antolatu beharko ditu, lan edo obra motaren arabera. Gutxienez, honako hauek izan beharko ditu: - Langileak garraiatzeko 2 ibilgailu, tresna txikiak eta erabilera komuneko materialak kargatzeko gaitasuna dutenak. - Obrako 2 dumper. - Ekipo hauslea duten 2 hondeamakina txiki. - Ekipo hauslea duen atzerako hondeamakina txiki 1. - 2 kamioi. - 2 konpresore ertain, mailu hauslea dutenak. - Asfaltoa ebakitzeko eta baldosa ebakitzeko 2 makina. - 5,5 eta 7,5 cv-ko potentzia elektrikoko xukatze-ponpa bat eta 1,5 cv-ko xukatze-ponpa monofasiko bat, sorgailu eta mahukekin emariak desbideratzeko.	Para una correcta ejecución del resto de los trabajos descritos, la empresa adjudicataria propondrá y organizará la maquinaria y medios necesarios en función del tipo de trabajo u obra, como mínimo se dispondrá de: - 2 vehículos para transporte del personal con capacidad de carga de pequeña herramienta y materiales de uso común. - 2 dumper de obra. - 2 mini-excavadoras con equipo rompedor. - 1 retroexcavadora con equipo rompedor. - 2 camiones - 2 compresores medios con martillos rompedores. - 2 cortadoras de asfalto y cortadoras de baldosa. - 1 bomba achique de entre 5,5 y de 7,5cv en potencia eléctrica y 1 bomba achique monofasica de 1,5cv, con generador y mangueras para desviar caudales.
Langileak garraiatzeko bi ibilgailuek gutxienez TZN-ren (DGT) B ingurumen-bereizgarria (horia) izan beharko dute. Ibilgailu horiek, baimenei dagokienez, zerbitzua egikaritzen duten bitartean Donostiako Isuri Gutxiko Eremuak arautzeko Udal Ordenantzak araututakoa bete beharko dute. Lizitatzaileak zerbitzuan erabiltzea proposatzen duen ibilgailu guztien fitxa teknikoa	Los dos vehículos de transporte de personal deberán tener al menos el distintivo ambiental B (amarillo) de la DGT. Estos vehículos, en cuanto a autorizaciones, durante la ejecución del servicio deberán atenerse a lo regulado en la Ordenanza Municipal reguladora de las zonas de bajas emisiones San Sebastián. El licitador deberá presentar la ficha técnica de todos los vehículos que proponga utilizar en

aurkeztu beharko du. Fitxa horretan zehaztapen teknikoak edo erregaiaren teknologiari buruzkoak agertu behar dira.	el servicio. En dicha ficha deberán figurar las especificaciones técnicas o relativas a la tecnología del combustible
Eta seinaleztapen- eta/edo babes-elementuei dagokienez, gutxienez honako hau eduki beharko da: - 2 m-ko altuerako 60 hesi, hormigoizko oindunak. - Oinezkoentzako 60 euste-hesi. - 2.000 m baliza-zinta (euskarriak barne) - Trafiko-seinaleen 40 unitate (D.60 edo 90 cm-ko zabalerakoak), metalezkoak, zutoinak edo jartzeko hesia barne. - Norabidea markatzeko 4 panel islatzaile, AI 2x1,1m, zutoin edo hesiaren gainean jarria. - 30 seinaleztapen-kono islatzaile, homologatuak, 50 cm-ko altuerakoak. - 10 argi-baliza. - 2 semaforo mugikor programagarri eta sinkronizagarri, kablerik gabeak, funtzionatzeko behar diren elementu guztiak dituztenak, eta bakoitzak bateria sorta bikoitza duena. - New Jersey motako plastikozko hesiak: 50 metro. - New Jersey motako hormigoizko 20 hesi. - Oinezkoentzako 15 pasabide, homologatuak, baranda dutenak. - 2 xafla, altzairuzkoak, 10 mm-ko lodierakoak, 2x2 metrokoak. - 2 xafla, altzairuzkoak, 10 mm-ko lodierakoak, 3x2 metrokoak. - 1 xafla, altzairuzkoak, 5 mm-ko lodierakoak, 1x1 metrokoak. - Banakako eta taldeko babes-ekipamendu 1 gune konfinatuetan lan egiteko.	Y con respecto a los elementos de señalización y/o protección será como mínimo el siguiente: - 60uds vallas de 2m de altura sobre pie de hormigón. - 60uds vallas de contención peatonal - 2.000m de cinta de balizamiento (incluso soportes) - 40uds de señales de trafico de D.60 o 90cm de lado, metalicas, incluos poste o valla para su colocación. - 4uds panel direccional reflectante AI 2x1,1m, colocado sobre poste o valla - 30 conos reflectantes de señalización de 50 cm de alto homologados. - 10 balizas luminosas. - 2uds conjunto de pareja de semáforos móviles programables y sincronizables sin cable, con todos los elementos necesarios para su funcionamiento y doble juego de baterías para cada uno. - 50m de barreras de plástico tipo New Jersey. - 20ud de barrera New Jersey de hormigón - 15 pasarelas homologadas para peatones, con barandilla - 2 chapas de acero de 10 mm. de espesor, 2x2 metros. - 2 chapas de acero de 10 mm de espesor, 3x2 metros. - 1 chapas de acero de 5 mm de espesor, 1x1 metros. - 1 Equipo de protección individual y colectiva para trabajos en espacios confinados
Kontserbazio, mantentze, erabilera eta aseguru gastu guztiak, eta bestelakoak, enpresa esleipendunaren kontura joango dira. Esleipendunaren betebeharra izango da ibilgailuak egoera onean mantentzea une oro; matxurarik izanez gero, antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuekin ordezkatu beharko dira. Ibilgailu guztiak Zerbitzuak emandako jarraibideen arabera margotu eta errotulatu beharko dira.	Todos los gastos de conservación, mantenimiento, uso, seguros y otros correrán a cargo de la empresa adjudicataria. Será obligación de la empresa adjudicataria el perfecto estado de los vehículos en todo momento, en caso de avería deberán ser sustituidos por otros de análogas características. Todos los vehículos serán pintados y rotulados según indicaciones del Servicio.
Bide publikoan lan egiten dutenek behar diren seinaleztapen-ekipoak izan beharko dituzte, hobeto detektatuak izateko eta oinezkoek eta ibilgailuek arriskurik ez izateko.	Los camiones y vehículos estarán equipados con los equipos o medios de señalización precisa para su mejor detección y eliminación de riesgos para los peatones y el tráfico rodado.
4.3.- MATERIALAK	4.3.- MATERIALES
Enpresa esleipendunak behar adina material izan beharko du «stock» batean, edozein matxura nahiz istripu berehala konpondu ahal izateko, bai eta programatutako bestelako jarduketak egiteko.	La empresa adjudicataria estará obligada a tener en un "stock" de elementos suficiente para poder atender y reparar inmediatamente cualquier avería o accidente que se produzca, así como para la ejecución de otras actuaciones programadas.
Egiaztapena egiteko, hilero, Udal Zerbitzu Teknikoei izakinen inbentarioa eman beharko zaie Udal Zerbitzu Teknikoei; hala ere, udal-langileek une oro egiaztatu ahal izango dituzte izakinak. Ziurtagiri bat izapidetzeko aldez aurreko baldintza izango da dagokion hilabeteko inbentarioa aurkeztea, gutxienez hurrengo puntuan adierazitako zenbatekoak betetzen dituena. Adierazitako	Para la comprobación, mensualmente se entregará a los Servicios Técnicos Municipales el inventario de existencias pudiendo en todo momento ser comprobado por personal municipal. Será condición previa para la tramitación de una certificación la presentación del inventario del mes correspondiente, que cumpla como mínimo las cantidades indicadas en el punto siguiente. Los materiales indicados se

materialek egoera ezin hobean eta itxura onean egon beharko dute uneoro. Edozein matxura edo istripuri aurre egin eta berehala konpondu ahal izateko materialen gutxieneko stockari dagokionez, biltegian obrako material hauek eduki beharko dira, gutxienez: - Hainbat dimentsiotako 10 saretxo irensle. - Isurbideen erregistroetarako 10 estalki karratu. - Erregistro karratuko 5 tapa, 40x40 eta/edo 50x50 neurrikoak, C250 motakoak. - Erregistro eraisgarriko 5 tapa zirkular, D.600 motakoak. - PVC-ko D250 SN4 hodia: 12 metro. - PVC-ko D315 SN4 hodia: 12 metro. - Baldosa hidrauliko hexagonal zuria: 50 metro karratu. - Baldosa hidrauliko hexagonal beltza: 25 metro karratu. - Miranda legar-baldosa: 50 metro karratu. - Baldosa hidrauliko grisa: 25 metro karratu. - T2 hormigoizko zintarria: 100 metro lineal. - 10 zementu-zaku eta dagozkien harea eta agregakinak. - Nahaste asfaltiko hotza, errendimendu handikoa, urarekiko erreaktiboa: 25 kg-ko 3 pote	deberán encontrar en todo momento en perfecto estado de uso y apariencia. Con respecto al Stock mínimo de materiales para poder atender y reparar inmediatamente cualquier avería o accidente que se produzca se deberá disponer en cualquier momento en el almacén como mínimo los siguientes materiales de obra: - 10uds rejillas tragadero varias dimensiones - 10uds tapas cuadradas de registro sumideros - 5uds tapas registro cuadrada de dimensiones 40x40 y/o 50x50 C250 - 5uds tapas registro abatible circular D.600 - 12m tubo PVC D250 SN4 - 12m tubo PVC D315 SN4 - 50 metros cuadrados de baldosa hidráulica hexagonal blanca - 25 metros cuadrados de baldosa hidráulica negra - 50 metros cuadrados de baldosa de grava Miranda - 25 metros cuadrados de baldosa hidráulica gris - 10 metros lineales de bordillo de hormigón T2 - 10 sacos de cemento y la arena y áridos correspondientes. - 3 botes de 25 kg de mezcla asfáltica fría de alto rendimiento reactiva al agua.
5. KAPITULUA.- BETE BEHARREKO BALDINTZAK ETA ENPRESA ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA 5.1.- EPEAK Zerbitzua ematen noiz hasten den alde batera utzita, artikulu honetan zehazten da enpresa esleipendunak zer epetan eduki eta jarri beharko dituen Udalaren esku agiri honetan eskatzen diren baliabide guztiak. Horrela, gainerako artikuluetan, administrazio-klausula partikularren pleguan eta indarrean dagoen legeriaren baldintza orokorretan aurreikusitakoez gain, enpresa esleipendunak GUTXIENEKO BALDINTZA hauek betetzeko konpromisoa hartu beharko du: 5.1.1- Donostialdean **lokal** bat izatea, kontratuari zerbitzu ematen dioten langileentzat beharrezkoak diren higiene- eta ongizate-instalazioak dituena, 486/97 Errege Dekretuaren arabera, edo, bestela, kontratua formalizatzen denetik zenbatzen hasita hogeita hamar (30) egun naturaleko epean lokal hori ezartzeko konpromisoa hartzea. Lokal horrek langileak hiriko edozein tokitara 30 minutu baino gutxiagoan iristeko moduko distantziara egon beharko du, premiazko jarduketei erantzuteko; era berean, edozein gorabeherari berehala erantzuteko eta konpontzeko behar adina material eduki beharko du. Horregatik, ibilgailuentzako komunikazio egokia izan behar du, horrek ez dezan eraginik izan pertsona edo entitate abonatuen errendimenduan eta afekzioetan, ez eta beste afekzio batzuetan ere, hala nola ibilgailuen eta oinezkoen trafikoan.	**CAP 5.- REQUISITOS A CUMPLIR Y RESPONSABILIDAD DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA** 5.1.- PLAZOS Independientemente del inicio de la prestación del Servicio, en el presente artículo se definen los plazos en los que la la empresa adjudicataria deberá disponer y poner a disposición del Ayuntamiento de todos los medios exigidos en el presente Pliego. De esta manera, además de los previstos en los restantes artículos, en el Pliego de Clausulas Administrativas Particulares y las Generales de la Legislación vigente, la empresa adjudicataria deberá comprometerse a cumplir los siguientes REQUISITOS MÍNIMOS: 5.1.1- Disponer de un **local** en la comarca de Donostialdea, provisto de almacén y de las instalaciones de higiene y bienestar necesarias para los trabajadores que den servicio al contrato, conforme RD 486/97, o en su defecto comprometerse a establecer dicho local en un plazo no superior a treinta (30) días naturales a partir de la formalización del contrato. Dicho local deberá estar a una distancia que le permita llegar al personal en menos de 30 minutos a cualquier punto de la ciudad para atender a las actuaciones de urgencia, así como disponer del stock de materiales suficiente para poder atender y reparar inmediatamente cualquier incidente que se produzca. Es por ello, que contará con una correcta comunicación rodada para no repercutir en el rendimiento y posibles afecciones a las personas o entidades abonadas, así como otras afecciones como al trafico rodado y peatonal.

5.1.2.- Kontratua formalizatzen denetik hamar (10) egun natural igaro baino lehen, Zerbitzuburu bat jartzea zerbitzuen buru, zerbitzua ematean sor daitezkeen arazoak konpontzeko erabateko agintea eta ahalmena dituena.	5.1.2- Disponer en un plazo no superior a diez (10) días naturales a partir de la formalización del contrato de un Jefe de Servicio al frente de los servicios, con plena autoridad y los debidos poderes para resolver cuantos problemas pudieran surgir en el desempeño del Servicio.
5.1.3. Kontratua formalizatzen denetik hogeita hamar (30) egun naturaleko epean, **dagokion kapituluan adierazitako materialen eta ekipoen stocka izatea**.	5.1.3- Poseer en el plazo de treinta (30) días naturales a partir de la formalización del contrato, de un "**stock" de materiales y equipo indicado en el capítulo correspondiente.**
5.1.4- **Hornitzaileen** zerrenda bat izango da, une oro bermatua izateko materialen hornidura, bai eta materialen hedapena eta garraioa ere.	5.1.4- Se dispondrá de una relación de **proveedores** que garantice el suministro de materiales en todo momento, así como su extendido y transporte.
Asfaltatze-lanetarako eta hormigoi-hornikuntzarako kontratu bat edo konpromiso-gutun bat izango da asfalto-planta batekin eta hormigoi-planta batekin, une oro hornikuntza bermatuko duena, bai eta hornigaiak hedatzeko eta garraiatzeko bitartekoak ere.	Para los trabajos de asfaltado y suministro de hormigón se dispondrá de un contrato suscrito o carta de compromiso con planta asfáltica y planta hormigonera acreditada que garantice el suministro en todo momento, así como de los medios para su extendido y transporte.
Kolektoreak barrutik mahuka edo zorro bidez birgaitzeko lanetarako, behar den ekipoa eta baliabideak izango dira, edo, bestela, enpresa egiaztatu batekin sinatutako kontratu bat edo konpromiso-gutun bat izan beharko da, lan horien kalitatea bermatzeko. Enpresa horrek gutxienez 5 urteko esperientzia izan behar du mota horretako jardueretan.	Para trabajos de rehabilitación interior de colectores mediante manga o manguitos se dispondrá del equipo y medios necesarios o en su defecto un contrato suscrito o carta de compromiso con una empresa acreditada que garantice la calidad de estos trabajos y con experiencia mínima de 5 años en este tipo de actuaciones
Hondakinen kudeatzaile bat izan behar da, obretatik eratorritako hondakin guztiak, lurrak barne, botatzeko.	Se debe disponer de un gestor de residuos donde verter todos los residuos procedentes de las obras incluido las tierras.
Erabiltzeko moduan izatea esaten denean, une oro esan nahi da, gauak eta jaiegunak barne.	La disponibilidad se entiende en todo momento, incluso noches y festivos.
5.1.5- Enpresa esleipendunak kontratua formalizatzen denetik hogei (20) egun natural igaro baino lehen eman beharko dio Uren Ustiapen eta Saneamendu Zerbitzuari plegu honetako eskakizunak behar bezala betetzeko behar den langile-taldearen organigrama. Organigraman aldaketarik egiten bada, udal-zerbitzu teknikoei jakinarazi beharko zaie, eta plegu honetan ezarritakoa eta lizitatzaileak eskainitakoa bete beharko da.	5.1.5- La empresa adjudicataria deberá facilitar al Servicio de Explotación de agua y saneamiento en un plazo inferior a veinte (20) días naturales a partir de la formalización del contrato el organigrama del equipo del personal necesario para satisfacer adecuadamente las exigencias del presente Pliego. Cualquier modificación al organigrama deberá ser notificada a los Servicios Técnicos Municipales y deberá cumplir con lo establecido en este pliego y lo ofertado por la licitadora.
Kontserbazioko lantalde bat izan beharko da kontratuaren arduradunak zehaztutako jarduketa puntualak egiteko. Plantilla dagokion kapituluan (**3. kap**.) deskribatutako langileek osatuko dute gutxienez, eta goizeko eta arratsaldeko lanaldian jardungo du.	Se dispondrá una brigada de conservación para la ejecución de actuaciones puntuales definidas por el responsable del contrato. La plantilla estará conformada como mínimo por el personal descrito en el capitulo correspondiente **(CAP 3)**, esta brigada realizará trabajos durante la jornada laboral mañana y tarde.
Gainerako jarduerei dagokienez, bai larrialdiei berehala erantzuteko lanak, bai programatutako lanak, lantaldeen bidez egingo dira. Lantaldeak enpresa esleipendunak adierazitakoaren arabera ezarriko dira, kopuruari dagokionez, eta lantalde bakoitzeko behar beste langile jarriko da, plegu honetan deskribatutako jarduerei erantzuteko. Lan horietarako, zaintza-zerbitzu bat ezarriko du enpresa esleipendunak, unean uneko eskaerei eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan erantzun ahal izateko.	En cuanto a la ejecución del resto de actuaciones, tanto los trabajos de respuesta inmediata ante emergencias como para los trabajos programados, se llevarán a cabo mediante brigadas que se dispondrá según lo indicado en la oferta de la empresa adjudicataria en cuanto al numero de brigadas y con el numero suficiente de trabajadores por brigada para atender a las actuaciones descritas en este Pliego. Para los trabajos de respuesta inmediata ante emergencias la empresa adjudicataria establecerá un servicio de guardia de forma que se puedan atender demandas puntuales las 24 horas del día y todos los días del año.

Udal-zerbitzuek, egoki iritziz gero, eska dezakete programatutako lanak gaueko edo jaieguneko ordutegian egitea, aldi baterako edo puntualki. Ihesen bat, hondoratzeren bat edo beste intzidentziaren bat gertatu dela-eta berehala eta urgentziaz jarduteko lantalde bat atera behar denean izan ezik, kasu hori plegu honetan adierazitakoaren arabera ordainduko da.	Los servicio municipales, si así lo estiman conveniente, podrán exigir que temporalmente o puntualmente, los trabajos programados sea prestado en horario nocturno o festivo. Salvo aquellos trabajos que por fuga, hundimiento u otras incidencias, sea necesario la salida de una brigada para atender de forma inmediata y urgente una incidencia, este caso se abonará según lo indicado en este Pliego.
Langileei aplikatu beharreko eraikuntzako hitzarmen kolektiboa betetzen dela ziurtatzeko, jarraipen bat egingo da; horretarako, esleipendunak hori justifikatzen duen dokumentazioa emango du, hileko ziurtagiriarekin batera.	Para asegurar el cumplimiento del Convenio Colectivo aplicable a los trabajadores, se procederá a realizar un seguimiento mediante la entrega por parte del adjudicatario de la documentación que lo justifique junto a la certificación mensual.
Lantalde horientzat, eskaintzan ezarritakoa hartuko da lanalditzat, eta ordutegi horretatik kanpo, presazko edo larrialdiko lan puntualtzat hartuko da, salbu eta jarduera puntualak egiten badira; izan ere, kasu horietan ordutegia aldatuko da, afekzio handirik ez izateko.	Para estas brigadas se considerará jornada laboral la establecida en la oferta, fuera de dicho horario se considerará trabajos puntuales de urgencia o emergencia, salvo actuaciones puntuales que se modificará el horario para evitar afecciones importantes.
5.1.6- Kontratua formalizatzen denetik hogei (20) egun naturaleko epean, dagokion kapituluan **(4. kap.)** deskribatutako **bitartekoak eta makineria** izatea.	5.1.6- Disponer en un plazo de veinte días (20) naturales a partir de la formalización del contrato de los **medios y maquinaria** descrito en el capitulo correspondiente **(CAP.4).**
Kontserbazio-, mantentze-, erabilera- eta aseguru-gastu guztiak eta bestelakoak enpresa esleipendunaren kontura joango dira. Esleipendunaren betebeharra izango da ibilgailuak egoera onean mantentzea une oro; matxurarik izanez gero, antzeko ezaugarriak dituzten beste batzuekin ordezkatu beharko dira.	Los gastos de conservación, mantenimiento, uso, seguros y otros correrán a cargo de la empresa adjudicataria. Los vehículos deberán estar en perfecto estado en todo momento y en caso de avería deberán ser sustituidos por otros de análogas características.
Ibilgailu guztiak zerbitzuak emandako jarraibideen arabera margotu eta errotulatuko dira.	Los vehículos serán pintados y rotulados según indicaciones del Servicio.
5.1.7- Kontratua formalizatzen denetik hogeita hamar (30) egun naturaleko epean, udal-zerbitzuen eta enpresa esleipendunaren arteko komunikazio egokia bermatuko duten **komunikazio-bitarteko** nahikoak izatea. Udal-zerbitzu teknikoen eta teknikari arduradunaren edo hark eskuordetu eta gai den pertsonaren arteko komunikazioak beti ziurtatuta egon beharko du eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan, jaiegunak barne.	5.1.7- Disponer en un plazo no superior a treinta (30) días naturales a partir de la formalización del contrato de los **medios de comunicaciones** suficientes que aseguren en todo momento la perfecta comunicación entre los Servicios Municipales y la empresa adjudicataria. La comunicación de los Servicios Técnicos Municipales y el Técnico Responsable o en quien delegue deberá quedar asegurada en todo momento durante las 24 horas del día, incluido días festivos.
5.1.8- Kontratua formalizatzen denetik hogeita hamar (30) egun naturaleko epean, enpresa esleipendunak jendeari arreta emateko **zerbitzu** bat izango du, obren egoerari edo exekuzioari buruzko salaketak eta iradokizunak jasotzeko, gaztelaniaz zein euskaraz.	5.1.8- En el plazo de treinta (30) días naturales a partir de a partir de la formalización del contrato, la empresa adjudicataria contará con un **servicio** de atención al público para recepción de denuncias y sugerencias relacionadas con el estado o ejecución de las obras, atendido tanto en castellano como en euskera.
5.1.9- Kontratua formalizatu eta berrogeita bost (45) egun naturaleko epean, enpresa esleipendunak mantentze-lanak **kudeatzeko aplikazio** bat (softwarea) izango du. Aplikazio horrek balioko du, besteak beste, oharrak, aurrekontuak, lan-aginduak eta kontratuarekin lotutako beste dokumentu batzuk sortu, jarraipena egin eta ixteko. Aplikazio hori ezarri eta mantentzeko gastu orokor guztiak enpresa esleipendunak ordainduko ditu. Kontratuan zehar, Ur Zerbitzuak kudeaketa-plataforma bat ezarriko du, eta, beraz, ezarpen-datara arte sortutako datuak irauli egingo dira.	5.1.9- En el plazo de cuarenta y cinco (45) días naturales a partir de la formalización del contrato, la empresa adjudicataria dispondrá de una **aplicación de gestión** (software) de mantenimiento. Esta aplicación servirá, entre sus finalidades, la de creación, seguimiento y cierre de avisos, presupuestos, ordenes de trabajo y otros documentos relacionados con el contrato. Todos los gastos generales por el establecimiento y mantenimiento de esta aplicación correrán a cargo de la empresa adjudicataria. A lo largo del contrato, el Servicio de Aguas implantará una plataforma de gestión. La adjudicataría tendrá la obligación de volcar los datos generados hasta la fecha de la implantación.
5.1.10.- Kontratua formalizatu eta hilabete iragan baino lehen, enpresa esleipendunak laneko **segurtasun eta**	5.1.10- En el plazo de un mes a partir de la formalización del contrato, la empresa adjudicataria se debe comprometer a

osasun plan bat izango duela agintzen du. Plan hori indarrean dagoen legediaren eta plegu honi erantsitako segurtasun-azterlanaren (III. eranskina) arabera idatziko da. Plan hori teknikari eskudunak, gaian espezialista denak, idatzi beharko du. Hasiera batean, ulertzen da plana orotarikoa izango dela, eta, beraz, jardun zehatzetan zentratu gabe, kontratuaren inguruabar gehienak kontuan hartu ahal izango dituela. Kontratuan zehar, eta hala eskatzen duten jarduketetan oinarrituta, plana osatu eta horietara egokitu beharko da.	disponer de un **Plan de Seguridad y Salud** Laboral redactado de acuerdo a la Legislación Vigente y al Estudio de Seguridad (Anexo III) que se adjunta al presente Pliego. Este Plan deberá de estar redactado por Técnico Competente y especialista en la materia. Inicialmente, se entiende, que el Plan será generalista de forma que, sin particularizar en actuación concreta alguna, pueda absorber la mayor parte de las circunstancias que pueden rodear el Contrato. A lo largo del Contrato y apoyado en actuaciones que así lo exijan el Plan deberá completarse y adecuarse a las mismas.
Lanak hasi aurretik, udal-zerbitzu teknikoek segurtasun-koordinatzaile bat izendatuko dute, segurtasun-plana kontrolatzeaz eta behar bezala betetzeaz arduratuko dena.	Antes del inicio de los trabajos, por los Servicios Técnicos Municipales se nombrará Coordinador/a de Seguridad, que se hará responsable del control y correcto cumplimiento del Plan de Seguridad.
Lanak egitean, une oro bete beharko da onartzen den segurtasun-planean ezarritakoa, eta, oro har, beharrezko neurri egokiak hartu beharko dira, langileek nahiz hirugarrenek istripurik izan ez dezaten.	En la ejecución de los trabajos, deberá cumplirse en todo momento lo especificado en el Plan de Seguridad que se apruebe, y en general adoptar las medidas necesarias y oportunas para evitar accidentes, tanto de los trabajadores, como de terceros.
Programatutako obrak egiteko, kasu bakoitzerako beharrezkoak diren higiene- eta ongizate-instalazioak eduki beharko ditu enpresak, eta horien ordainketa proportzionalki sartzen da dagozkien unitateko prezioetan.	Para la ejecución de las obras programadas la empresa deberá disponer de las instalaciones de higiene y bienestar necesarias para cada caso y cuyo abono se incluye proporcionalmente en los correspondientes precios unitarios.
5.1.11.- Kontratua formalizatu eta hilabete iragan baino lehen, esleipendunak egin beharreko obretan ustez sortuko diren **hondakinak kudeatzeko plan** bat aurkeztu beharko du. Plan hori eguneratu eta osatu egingo da, benetan sortutako hondakinak ikusita egokitzat jotzen bada.	5.1.11- En el plazo de un mes a partir de la formalización del contrato la empresa adjudicataria deberá presentar un **Plan de Gestión de los Residuos** previsiblemente generados en las obras a realizar. Este Plan será actualizado y complementado cuando así se estime oportuno a la vista de los residuos realmente generados.
Obra gauzatzen den bitartean, bermatu behar da azpiproduktuen, bigarren mailako lehengaien, material birziklatuen edo berrerabiltzeko prestaketa-prozesuetatik datozenen % 40, gutxienez, obran benetan jarriko dela obra osoaren gainean (pisuan), salbu eta, justifikatutako arrazoi teknikoengatik, ehuneko hori murriztu behar bada, Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko 10/2021 Legearen 84.3 artikuluan ezarritakoaren arabera	Durante la ejecución de la obra se debe garantizar la efectiva puesta en obra de un porcentaje del 40% de subproductos, materias primas secundarias, materiales reciclados o provenientes de procesos de preparación para la reutilización sobre el total de la obra (en peso), salvo que por motivos técnicos justificados este porcentaje deba ser reducido, establecido por el artículo 84.3 de la Ley 10/2021 de Administración Ambiental de Euskadi.
Kontratuaren urte bakoitza amaitzean, esleipendunak egindako lan guztiekiko bigarren mailako materialen ehuneko erreala kalkulatu beharko du.	Al finalizar cada año del contrato, el adjudicatario debe realizar el cálculo del porcentaje real de materiales secundarios sobre el total de los trabajos realizados.
Kalkuluak egiteko, Ihobek garatutako tresna eta gida erabili ahal izango dira. Esteka honetan kontsulta daiteke: https://www.ihobe.eus/argitalpenak/obren-kontratazioan-bigarren-mailako-materialak- sartzea.	Para realizar los cálculos, se podrá utilizar la herramienta y la guía desarrollada por Ihobe, que se puede consultar en el siguiente enlace: https://www.ihobe.eus/publicaciones/inclusion-materiales-secundarios-en-contratacion-obras.
Aurreikusten da, oso puntualki, zangetako indusketa-lanetan amianto-hondakinak ager daitezkeela; horregatik, enpresa esleipendunak edo bere azpikontratistak amianto-arriskua duten enpresen erregistroan (RERA) inskribatuta egon beharko du.	Se contempla, de forma muy puntual, que durante los trabajos de excavación en zanjas existe la posibilidad de aparición de residuos de amianto, es por ello, que la empresa adjudicataria o una subcontrata deberá estar inscrita en el registro de empresas con riesgo por amianto (RERA).
5.1.12- Enpresa esleipendunak, hiru hilean behin, **kalitatea bermatzeko plan bat** egingo du, obra behar bezala gauzatzen dela bermatzeko beharrezkoak diren kontrol-mugarriak adierazita, eta, horrez gain,	5.1.12- La empresa adjudicataria trimestralmente realizará un **Plan de Aseguramiento de la Calidad** con los hitos de control necesarios para garantizar la correcta ejecución de la obra ademas de un Programa de medidas de actuaciones

ingurumen-jardueretarako neurrien programa bat eta ingurumen-inpaktuaren kontrola egingo ditu.	Medioambientales y el control del impacto ambiental.
5.1.13- Lanak hasita, enpresa esleipendunak ur-kontsumoa neurtzeko kontagailu bat izango du beren zereginetarako edateko ura erabiltzen duten ekipo guztietan. Ur-zerbitzu teknikoak homologatu eta baliozkotu beharko ditu kontagailuak.	5.1.13- Iniciados los trabajos la empresa adjudicataria dispondrá en todos los equipos que utilicen agua potable para sus tareas de un contador para medir el consumo de agua. Estos contadores deberán ser dados de alta por el Servicio Técnico de Aguas.
5.2. ENPRESA ESLEIPENDUNAREN ERANTZUKIZUNA	5.2.- RESPONSABILIDAD DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA
Enpresa esleipendunak ezin izango du aitzakiarik jarri Udalak agindutako zerbitzuak bertan behera uzteko edo atzeratzeko langilerik ez dagoelako, eta une oro eduki beharko du hori gauzatzeko behar den denbora, hileko kuota finkoan inolako eraginik izan gabe.	La empresa adjudicataria no podrá pretextar la falta de personal para suspender ó retrasar los servicios que le ordene el Ayuntamiento, debiendo disponer en todo momento del necesario para su ejecución.
Kontratua amaitzean, enpresa esleipendunak ez du inolako erreklamaziorik egiteko eskubiderik izango, ez eta erabilitako ekipoak Udalak erosteko eskatzekorik ere. Udalak ez du inolako lan-harremanik enpresa esleipenduneko langileekin edo zerbitzua eman dutenekin.	A la finalización del contrato, la empresa adjudicataria no tendrá derecho a reclamación alguna, ni a exigir que el Ayuntamiento le adquiera los equipos utilizados, siendo el Ayuntamiento totalmente ajeno a la relación laboral con el personal de la empresa o que haya realizado el Servicio.
Enpresa esleipenduna izango da janzkeran garbitasunik, txukuntasunik eta uniformetasunik ez izatearen edo langileek bizilagunak begirunerik gabe edo gaizki tratatzearen erantzulea, bai eta zerbitzu ematean eta lantokietara joatean zarata handia ateratzeaz ere.	La empresa adjudicataria se responsabilizará de la falta de aseo, decoro, uniformidad en el vestuario o de la descortesía o mal trato que el personal observe con respecto al vecindario, así como de producir ruidos excesivos durante la prestación de los servicios y al trasladarse a los puntos de trabajo.
Enpresa esleipendunak obrak egiteko aplikatzekoa den araudia bete beharko du, eta, oro har, dokumentu honetako obrekin, instalazio osagarriekin edo horiek egiteko behar diren lanekin zerikusia duten arau, jarraibide edo erregelamendu ofizialetan jasotako agindu guztiak beteko ditu.	La empresa adjudicataria deberá cumplir la Normativa vigente aplicable para la ejecución de obras, y en general, cuantas prescripciones figuren en las Normas, Instrucciones o Reglamentos oficiales, que guarden relación con las obras del presente documento, con sus instalaciones complementarias o con los trabajos necesarios para realizarlas.
40/2015 Legearen arabera, esleipenduna izango da kalte guztien erantzule, salbu eta hori proiektuaren akatsen edo Udalaren zuzeneko agindu baten ondorio bada.	De acuerdo con la Ley 40/2015, el adjudicatario será responsable de todos los daños, salvo que ello sea consecuencia de los vicios del proyecto o de una orden directa del Ayuntamiento.
Enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango da hirugarrenek honako hauen ondorioz izandako kalteei dagokiena: - Obrak egitea. - Obren jarraipen eskasa egitea eta/edo kontratuaren arduradunari ez jakinaraztea. - Konponketak egiten atzeratzea.	Con relación a **daños producidos a terceros** se entenderá responsabilidad de la empresa adjudicataria, la correspondiente a los daños sufridos por terceros derivados de: -la ejecución de las obras. -el deficiente seguimiento de las obras y/o la falta de comunicación al responsable del contrato. -la tardanza en la ejecución de reparaciones.
Hala, bada, honako hauek enpresa esleipendunaren erantzukizuna dira: - Konpontzeko agindutako kalte batek, behar bezala konpondu edo seinaleztatu ez bada, istripuren bat eragitea. - Konponketa bat dela-eta gertatzen den edozein istripu, konponketan zabarkeriaz aritzeagatik edo behar diren segurtasun-neurriak ez hartzeagatik. - Konponketa baten ondoren izandako akats batengatik	De esta forma entra dentro de la responsabilidad de la empresa adjudicataria, entre otros: -cualquier accidente que se produzca motivado por un desperfecto del que se ha encargado su reparación y no haya sido reparado o señalizado adecuada y suficientemente. -cualquier accidente que se produzca en el ámbito de una reparación y por causa negligente en la ejecución de la misma, o la falta de adopción de las medidas de seguridad suficientes. -cualquier accidente que se produzca en un desperfecto

gertatutako edozein istripu, baldin eta arrazoia bada konponketa gaizki egin zela. - Akats batengatik gertatutako edozein istripu, baldin eta, enpresa esleipendunari jakinarazi ondoren edo zaintza-zerbitzuak berrikusi ondoren, gorabeheraren orria egin ez bada, edo akatsa gaizki konpondu bada, eta/edo behar bezala seinaleztatu ez bada. Enpresa esleipenduna izango da bere langileek edo bere ekoizpen-bitartekoek, hainbat arrazoirengatik, jasan ditzaketen kalteen erantzule osoa. 5.3.- EZ-BETETZEAK ETA ZEHAPENAK 5.3.1.- EZ-BETETZEAK 1.- Enpresa esleipendunak zerbitzuak ematean egiten dituen ez-betetzeak oso larriak, larriak edo arinak izan daitezke. 2.- Hauek izango dira ez-betetze oso larriak: - Programatutako eta planifikatutako jarduerak aurreikusitakoa baino zazpi egun natural gehiago atzeratzea, aldez aurretik jakinarazi gabe eta arrazoi justifikaturik gabe, edo ezinbesteko kasuetan izan ezik. - Obraren programazioari edo plangintzari dagokionez, zazpi egun natural baino gehiago atzeratzea, obra hilabetetik gorakoa denean, eta aldez aurretik Ur eta Saneamendu Zerbitzuari justifikatutako plangintza berria jakinarazi gabe. - Berehala ez esku hartzea (ordubete baino gutxiago) premiazko jarduketa edo seinaleztapena behar duen larrialdi-egoera baten berri izan ondoren. - Zerbitzuak modu nabarmen akastunean edo irregularrean ematea. - Kontserbazio-lantaldearen ordutegietan modu sistematikoan atzeratzea, ezarritako bitarteko mekanikoak ez erabiltzea edo kontserbazio-egoera txarrean izatea. - Kontserbazio-lantaldeko baliabideak eta bitarteko mekanikoak erabiltzea plegu honetan jaso ez diren lanetarako, ezarritako lanaldian eta Ur eta Saneamendu Zerbitzuaren baimenik gabe. - Plegu honetan jaso ez diren edo Ur eta Saneamendu Zerbitzuak agindu ez dituen beste jarduera batzuetan erabiltzea kontratu honi atxikitako giza baliabideak edo bitarteko materialak. - Zerbitzuen ordenari, formari eta erregimenari buruz eta, oro har, zerbitzuen prestazioa arautuko duten arauei buruz Udalak emandako aginduak ez betetzea. - Enpresa esleipendunari atxikitako langileek tratu desegokiagatik herritarrekin edo udaleko langileekin izandako istiluak. Honako hauek izango dira ez-betetze larriak: - 3. kapituluan ezarritakoa eta 5.1 kapituluan ezarritako baldintzak ez betetzea, kontratuaren funtsezko betebehar gisa ezartzen direnak izan ezik. - Ziurtagiriak onartzeko plegu honetan adierazitako beharrezko dokumentazioa ez aurkeztea. - Obra-kartelik edo bestelako informaziorik ez jartzea programatutako obretako jarduketen eraginpeko	sobrevenido después de una reparación e imputable a una ejecución defectuosa. - cualquier accidente que se produzca en un desperfecto sobre el que, habiendo sido avisada la empresa adjudicataria o habiendo debido ser revisado por la empresa adjudicataria, no se ha confeccionado hoja de incidencia o ésta se ha realizado defectuosamente, y/o no se ha señalizado adecuadamente. La empresa adjudicataria será enteramente responsable de los daños que por diferentes causas puedan sufrir su personal o medios de producción. 5.3.- INCUMPLIMIENTOS Y PENALIDADES 5.3.1.- INCUMPLIMIENTOS 1.- Los incumplimientos que cometa la empresa adjudicataria en la ejecución de los distintos servicios se clasificarán como muy graves, graves y leves. 2.- Se considerarán incumplimientos muy graves: - La demora en el comienzo de las actuaciones programadas y planificadas superior a siete días naturales sobre la fecha prevista sin previo aviso y sin causa justificada o salvo causas de fuerza mayor. - La demora superior a siete días naturales con respecto a la programación o planning de la obra cuando la obra sea superior a un mes y sin previo aviso al Servicio de Agua y Saneamiento de la nueva planificación justificada. - La no intervención inmediata (menos de una hora) tras el aviso o conocimiento de una situación de urgencia en la que sea necesario una actuación o señalización urgente. - La prestación manifiestamente defectuosa o irregular de los servicios. - El retraso sistemático en los horarios de la brigada de conservación, no utilización de los medios establecidos o mal estado de conservación de los mismos . - El empleo de los medios humanos y medios mecánicos de la brigada de conservación para trabajos no contemplados en el presente pliego en la jornada laboral establecida y sin autorización del Servicio de Agua y Saneamiento. - El uso de los medios materiales y humanos destinados a este contrato en otras actuaciones no contempladas en el presente Pliego o no ordenadas por el Servicio de Agua y Saneamiento. - Desobediencia a las órdenes oficiales del Ayuntamiento, relativas al orden, forma y régimen de los servicios y en general a las normas que regularán la prestación de los mismos. - Los incidentes del personal afecto a la empresa adjudicataria con los ciudadanos o con el personal municipal por trato incorrecto. Tendrán consideración de incumplimientos graves: - El incumplimiento de lo establecido en el capitulo 3, así como los requisitos establecidos en el capitulo 5.1, salvo los que se establezcan como obligaciones esenciales del contrato. - La no entrega de la documentación necesaria indicada en este Pliego para la aprobación de las certificaciones. - La no colocación de carteles de obra u otro tipo de

auzokoentzat edo merkatarientzat. - Parteak garaiz ez aurkeztea eta akatsak izatea egiazkotasunari edo informaziorik ezari dagokionez. - Hutsegite arinak behin eta berriz egitea. Ez-betetze arintzat joko dira aurreikusi ez diren gainerako guztiak, baldin eta plegu honetan ezarritako baldintzen kalterako badira, eta zerbitzuei kalte ez-larria eragiten badiete edo langileen edo erabilitako baliabideen aldetik hutsen bat badakarte. Donostiako Udalari baino ez dagokio aurreko ataletan jasotako edozein ez-betetze kalifikatzea. 5.3.2. – ZIGORRAK Donostiako Udalak zehapen hauek jarri ahal izango dizkio enpresa esleipendunari: - Oso larritzat jotako ez-betetze bat egiteagatik, 10.000 eurotik 30.000 eurora bitarteko zehapena. - Ez-betetze oso larriak kontratua suntsituz, bermea galduz eta kalte-galerengatiko kalte-ordaina emanez zehatu daitezke. - Oso larritzat jotako ez-betetze bat egiteagatik, 3.000 eurotik 10.000 eurora bitarteko zehapena. - Bost ez-betetze oso larri eginez gero, ez-betetze bakoitzeko zigorra ezartzeaz gain kontratua suntsituz, bermea galduz eta kalte-galerengatiko kalte-ordaina emanez zehatu daiteke. - Huts-egite arinak 500 eurotik 3.000 eurora bitarteko isunarekin zehatu ahal izango dira. **6.- ZIURTAGIRIA. PREZIOAK ETA ESKALA-KOEFIZIENTEAK.** 6.1.- ZIURTAGIRIEN KALKULUA Hilero igorriko da aurreko hilean egindako kontserbazio-, birgaitze-, mantentze- eta konponketa-lanei dagokien ziurtagiria, eta hurrengo hileko lehen 10 egunetan entregatu beharko da. Nolanahi izanda ere, ziurtagiriak kontura egindakoak direla joko da beti, eta ez dute esan nahi, inoiz, lanen harrera egiten dela. Ziurtagiri partzial horiei lotutako ordainketak azken neurketan gertatzen diren zuzenketen eta aldaketen araberakoak izango dira. Ziurtagiriek uneko urteari egingo diote erreferentzia beti. Jarduketa bakoitzerako, kontserbazio- eta larrialdi-lanetan eta lan programatuetan, modu independentean tratatuko da ura edo saneamendua bada. Hilabetean egindako obra-unitateen neurketak kontuan hartuta egingo da ziurtagiria, I. ERANSKINEAN agertzen diren unitate-prezioak aplikatuko zaizkie obra-unitate horiei, bai eta hondakinen kudeaketatik ateratzen den zenbatekoa ere, zeina aurreko hilean kudeatutakoaren arabera kalkulatuko den. Azken ziurtagiriaren zenbatekoari dagokion zenbatekoa gehituko zaio, indarrean dagoen balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ) kontzeptuan. Premiazko lanetan eta/edo programatutako lanetan,	información para los vecinos o comerciantes afectados por las actuaciones de las obras programadas. - La no presentación puntualmente de los partes y sus deficiencias en cuanto a veracidad y/o falta de información. - La reiteración en la comisión de faltas leves. Se considerarán como incumplimientos leves todas las demás no previstas anteriormente y que de algún modo signifiquen detrimento de las condiciones establecidas en este Pliego, con perjuicio no grave de los servicios o que den lugar a deficiencias en el aspecto del personal o de los medios utilizados. La calificación de cualquier incumplimiento, dentro de los apartados anteriores, corresponde única y exclusivamente al Ayuntamiento. 5.3.2.– PENALIDADES Las penalidades que podrá imponer este Excmo. Ayuntamiento a la empresa adjudicataria serán las siguientes: - Por la comisión de incumplimientos calificado como de muy graves, penalidad de 10.000 € a 30.000 €. - La comisión de las incumplimientos muy graves, podrá ser penalizada con la resolución del contrato, pérdida de la garantía e indemnización por daños y perjuicios. - Por la comisión de incumplimiento grave, penalidad de 3.000 € a 10.000 €. - La comisión de cinco incumplimientos graves, podrá ser penalizada, además de la penalidad por cada incumplimiento, con la rescisión del contrato, con la pérdida de garantía y con una indemnización por daños y perjuicios. - Las faltas leves podrán ser penadas con multa de 500 € a 3.000 € **6.- CERTIFICACIÓN. PRECIOS Y COEFICIENTES DE ESCALA.** 6.1.- CALCULO DE CERTIFICACIONES Mensualmente se extenderá la certificación correspondiente a los trabajos de conservación, rehabilitación, mantenimiento y reparación realizados el mes anterior y se entregará durante los primeros 10 días del mes siguiente. En cualquier caso, las certificaciones se entenderán siempre abono a cuenta, no suponiendo carácter alguno de recepción en ningún caso. Los pagos vinculados a estas certificaciones parciales están sujetos a rectificaciones y variaciones que se produzcan en la medición final. Las certificaciones serán siempre "a origen" en el año en curso Para cada actuación, en trabajos de conservación, de urgencia y programados se tratará de forma independiente si es agua o saneamiento. La certificación se obtendrá de las mediciones de las unidades de obra ejecutadas durante el mes a certificar y a las que se aplicarán los precios unitarios que figuran en el ANEXO I, al igual que el importe resultante de la gestión de residuos que será calculado en base a lo gestionado el mes anterior. El importe de la certificación final se verá incrementado en la correspondiente cantidad en concepto de Impuesto sobre el Valor Añadido vigente (IVA). En los trabajos de urgencia y programados se aplicarán a los importes resultantes de cada actuación los siguientes

honako kontzeptu hauek aplikatuko zaizkie jarduketa bakoitzetik ateratzen diren zenbatekoei:

(BE) balio eskalagarria, obra oso bakoitzean gauzatutako obra-unitateak neurtzearen ondoriozko zenbatekoa, ikus 6.2 ataleko koefiziente-taula.

(E) eskala-koefizientea, 6.2 atala

(GK) gaueko/jaieguneko koefizientea, larrialdiko jardueretan soilik aplikatuko dena, eta (E) eskalako koefizientea aplikatu ondoren.

6.2.- ESKALA-KOEFIZIENTEEN TAULA

Premiazko lanen eta/edo lan programatuen zenbatekoa kalkulatzeko, (E) eskalako koefizientea aplikatuko zaio obra oso bakoitzean gauzatutako obra-unitateak neurtzearen ondoriozko balio eskalagarriari (BE), jarduketa edo enkargu hori jatorrian ziurtatzen den ala ez kontuan hartu gabe.

ESKALA-KOEFIZIENTEA

0 €		gehienez		1.000 €.....	E1
1.000 €	<	BE	≤	2.500 €.....	E2
2.500 €	<	BE	≤	50.000 €.....	E3
50.000 €	<	BE	≤	70.000 €.....	E4
		BE	>	70.000 €.....	E5

E eskalako gehienezko erreferentzia-balio maximo hauek zehazten dira:

E1= 1,50 ; E2= 1,10 ; E3= 1,00 ; E4= 0,90 ; E5= 0,88

Eskala-koefizienteak (E) **ez zaizkie aplikatuko** kontserbazio-brigadaren unitate-prezioei, premiazko lanetarako brigadaren erabilgarritasunaren kontzeptuari, kontserbazio-brigadarako materialen prezioei, ezta hondakinak kudeatzeko unitate-prezioei eta segurtasun- eta osasun-prezio unitarioei ere.

Eskaintzan ezingo dira indize horien balioak aldatu.

6.3.- GAUEKO EDO JAIEGUNEKO LANEN KOEFIZIENTEAK (GK) PREMIAZKO LANETAN

Balorazio eskalagarrian txertatutako prezioei GK koefiziente bat aplikatu ahal izango zaie. Eskala koefizientea aplikatu ondoren aplikatuko da GK koefiziente hori, eta 1,10eko balioa izango du jaiegunean, gauez edo lanalditik kanpo premiazko jardueretan egiten diren lan guztietarako. Gainerako balioak 1 izango dira.

6.4.- OBRAKO PREZIO UNITARIOEN TAULA

Baldintza-agiri honetako I. eranskinean enpresa lizitatzaileek eskaintza zein unitate-preziotan egin behar duten adierazten da.

Enpresa lizitatzaileek baja orokorra eta bakarra

conceptos:

(VE) valor escalable, importe resultante de la medición de las unidades de obra ejecutadas de cada obra completa, ver cuadro de coeficientes en apartado 6.2

(E) coeficiente de escala, apartado 6.2

(CN) coeficiente de nocturnidad/festiva, que se aplicará unicamente en las actuaciones de urgencia y después de aplicar el coeficiente de escala (E)

6.2.- CUADRO DE COEFICIENTES DE ESCALA (E)

El importe en los trabajos de urgencia y/o programados se obtendrá aplicando el coeficiente de escala (E) al valor escalable (VE) resultante de la medición de las unidades de obra ejecutadas de cada obra completa, independientemente que se certifique a origen dicha actuación o encargo.

COEFICIENTE DE ESCALA (E)

0 €		hasta		1.000€.....	E1
1.000 €	<	VE	≤	2.500€.....	E2
2.500 €	<	VE	≤	50.000€.....	E3
50.000 €	<	VE	≤	70.000 €.....	E4
		VE	>	70.000 €.....	E5

Se establecen los siguientes valores de escala E de referencia máximos:

E1= 1,50 ; E2= 1,10 ; E3= 1,00 ; E4= 0,90 ; E5= 0,88

Los coeficientes de escala (E) **no serán aplicables** a los precios unitarios de la brigada de conservación, al concepto de disponibilidad de la brigada para los trabajos de urgencia, a los precios de materiales para la brigada conservación, ni a los precios unitarios de gestión de residuos y precios unitarios de seguridad y salud

No se podrá modificar en la oferta los valores de estos índices.

6.3.- COEFICIENTES DE TRABAJOS JORNADA NOCTURNA O FESTIVA EN TRABAJOS DE URGENCIA (CN)

Los precios incluidos en la valoración escalable se les podrá aplicar un coeficiente CN. Dicho coeficiente se aplicará una vez aplicado el coeficiente de escala y tendrá un valor de 1,10 para todos los trabajos que se efectúen en día festivo o en jornada nocturna o fuera de la jornada laboral en actuaciones de urgencia o emergencia. El resto de valores sera 1.

6.4.- CUADRO DE PRECIOS UNITARIOS

En el documento anexo I de este Pliego se indican los precios unitarios sobre los que las empresas licitadoras deberán realizar una oferta.

aurkeztu beharko dute, aipatutako eranskinean agertzen diren prezioen zerrendari dagokionez.

BEZa ez dago prezioan sartuta.

Informazioa emate aldera baino ez, lizitatzaileek kontratuko lanak hobeto ezagutu ditzaten, eta Udal honentzat inolako izaera loteslerik gabe, kontratuaren zenbateko global zenbatetsiaren gutxi gorabeherako aurrekontua erantsi da V. ERANSKIN gisa. Adierazi den bezala, datu horiek orientagarriak baino ez dira, Udalak guztiz beharrezkotzat jotzen dituen prestazioak soilik eskatuko baititu. Hori guztia, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 33. xedapen gehigarriak aurreikusitako araudiarekin bat.

6.5.- PREZIO BANAKATUAK
Enpresa lizitatzaileek baldintza-agiri honetako eranskinetan jasotako prezio guztien prezio banakatuak aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzan, hornidura-prezioak izan ezik.

7.- LIKIDAZIOA, BESTE GASTU BATZUK

7.1.- LIKIDAZIOA

Urtean behin likidazio bat egingo da, iragandako urtean emandako hileko ziurtagiriak bilduko dituena.

Ziurtagiri edo likidazio bakoitza izapidetzeko, enpresa esleipendunak garaiz eta behar bezala aurkeztu beharko ditu baldintza-agirian eskatutako agiriak. Ziurtagiriaren edo likidazioaren espedienteari erantsiko zaio dokumentazio hori.

7.2.- BESTE GASTU BATZUK

Enpresa esleipendunaren konturako gastuak, prezio unitarioak eskaintzerakoan kontuan hartu beharko direnak, aurreko ataletan adierazitakoez gain, honako hauek izango dira:
- Zerbitzuak emateko behar diren bitarteko mekaniko guztiak erostea edo alokatzea, eta erabiltzen diren ekipoak eta ekipo osagarriak konpontzea eta birjartzea.

- Instalazio finko guztiak, jabetzan edo alokairuan, erosteko eta mantentzeko gastuak.

- Kontratatutako zerbitzuak emateko behar diren langile guztien soldatak, aseguruak eta gainerako gastuak ordaintzea, araudi ofizialaren arabera, bai eta arauzko lan-uniformeak ere.
- Ibilgailuak erabiltzeko gastu guztiak, hala nola erregaiak, olioak, ordezko piezak, konponketak eta aseguruak eta horrekin zerikusia duten beste gastu batzuk.
- Zerbitzuak ematearekin eta horiei dagozkien dokumentuak izapidetzearekin lotutako gastu guztiak, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) barne.
- Laneko segurtasun eta osasun-plana idazteak dakartzan gastuak, baita plan hori eta gaur egun indarrean dagoen legeria osoa zorrotz betetzetik eratorritakoak eta horrekin lotuta sor daitezkeenak ere.
- Gainerako zerbitzuak eskatzea konpainiei eta Udaleko atalei (Iberdrola, telefonoa, semaforizazioa eta

Las empresas licitadoras deberán presentar una baja global y única, en tanto por ciento, a la relación de precios que figuran en el citado Anexo.

El IVA no se considera incluido.

A efectos meramente informativos, a fin de que los licitadores tengan un mejor conocimiento de los trabajos del contrato y sin que resulte vinculante para este Ayuntamiento, se adjunta como ANEXO V un presupuesto orientativo del importe global estimado del contrato. Tal y como se ha señalado, estos datos son meramente orientativos, dado que el Ayuntamiento llevará a cabo únicamente aquellas prestaciones que considere absolutamente necesarias. Todo ello, en aplicación de la Disposición Adicional 33 de la Ley de Contratos del Sector Público.

6.5.- PRECIOS DESCOMPUESTOS
Las empresas licitadoras deberán en su oferta presentar los Precios descompuestos de todos los precios incluidos en los Anexos de este Pliego, excepto los de suministro.

7.- LIQUIDACIÓN, OTROS GASTOS

7.1.- LIQUIDACIÓN

Anualmente se realizará una liquidación que englobe las correspondientes certificaciones mensuales emitidas a lo largo del año transcurrido.

Para proceder a la tramitación de cada certificación o liquidación, la empresa adjudicataria deberá presentar en tiempo y forma la documentación exigida en el Pliego. Dicha documentación se adjuntará al expediente de la certificación o liquidación.

7.2.- OTROS GASTOS

Los Gastos por cuenta de la empresa adjudicataria y que deberán tenerse en cuenta a la hora de ofertar los precios unitarios, además de los indicados en apartados anteriores, serán:
- La compra o alquiler de todos los medios mecánicos necesarios para la realización de los servicios, así como la reparación y reposición de los equipos en uso y de los equipos complementarios.
- Los gastos derivados de la adquisición y mantenimiento de las instalaciones fijas en su totalidad, ya sea en régimen de propiedad o en régimen de alquiler.
- El pago de los salarios, seguros y demás gastos, de acuerdo con la Normativa Oficial de todo el personal necesario para la prestación de los servicios contratados, así como sus uniformes de trabajo reglamentarios.
- Todos los gastos de utilización de los vehículos, como carburantes, aceites, repuestos, reparaciones y seguros y otros gastos relacionados.

- Todos los gastos inherentes a la prestación de los servicios y tramitación de los documentos que a ellos se refieren, incluso el Impuesto sobre el Valor Añadido (I.V.A.).
- Los gastos inherentes a la redacción del correspondiente Plan de Seguridad y Salud, así como los que se deriven del estricto cumplimiento del mismo y de toda la legislación actualmente vigente y la que pueda originarse al respecto.
- La solicitud del resto de servicios a las diferentes

gainerako zerbitzuak), bai eta jarduera hobeto definitzeko behar diren laginak ere.	compañías y departamentos del Ayuntamiento (Iberdrola, telefónica, semaforización y resto de servicios.), así como las catas necesarias para una mejora definición de la actuación.

Donostian, sinaduraren datan
Kontratuaren arduraduna

Izta/Fdo.: Pilar Flores

Elektronikoki sinatutako dokumentua / Documento firmado digitalmente :
Olatz Yarza Garagorri (07/01/2026 09:41 CET)
Egiaztatzeko / Verificación : https://www.donostia.eus/scve
Eskaera kodea / Código de petición : ZQU6-F6PM-DRXP-QFLQ